



TRADIZIOAK
LES TRADITIONS


10

Aitzpea Leizaola

BASQUE.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA



Aitzpea Leizaola

BASQUE.

01	Euskara La langue basque
02	Literatura La littérature
03	Musika klasikoa La musique classique
04	Euskal kantagintza: pop, rock, folk La chanson basque : pop, rock, folk
05	Artea L'art
06	Zinema Le cinéma
07	Arkitektura eta diseinua L'architecture et le design
08	Euskal dantza La danse basque
09	Bertsolaritza Le bertsolarisme
10	Tradizioak Les traditions
11	Sukaldaritza La cuisine
12	Antzerkia Le théâtre

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberak zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugar jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoa piztea du helburu.

Cette collection crée par l'Institut basque Etxepare réunit douze disciplines culturelles. Elles sont toutes les maillons d'une même chaîne, car elles partagent la même langue, le même territoire, et la même histoire. À travers notre culture, nous vous invitons à être témoin de la fusion entre tradition et innovation, du mélange du local et de l'étranger dans le territoire de la langue basque. Nous vous invitons à découvrir d'où nous venons, où nous en sommes, et vers où nous allons. Cette collection est un point de départ destiné à éveiller votre curiosité et à susciter le désir de mieux connaître la culture basque.

TRADIZIOAK LES TRADITIONS

Aitzpea Leizaola

10	Sarrera	Introduction
14	Jatorri misterioetsutik gizarte postindustrialera	Des origines mystérieuses à une société postindustrielle
20	Baserriaren zentraltasuna	Centralité de la ferme
28	Auzoa eta auzolana	Voisinage et travail collectif
32	Iraganeko gizarte egituraketaren lekukoak	Anciens témoins de la structuration de la société
36	Azokak	Marchés
42	Lanak eta festak bat egiten dutenean: herri-kirolak	Quand le travail rencontre la fête : force basque
46	Ingurunea dema-zelai	L'environnement comme terrain de jeu
50	Sozializazio-esparru biziak: kuadrillak, elkarteak, lagunarte-sareak	Des cadres de socialisation variés : 'kuadrillas', sociétés, réseaux d'amis
56	Festa-egutegi bizi eta oparoa	Un agenda des festivités vaste et riche
64	Ohitura zaharrak? Tradizio berriak, bizi-biziak	Anciennes coutumes, nouvelles traditions bien vivantes
68	Tradizioa, etorkizunera begiratu bat	Tradition, un regard tourné vers l'avenir

Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Comment la seule langue indigène d'Europe occidentale qui ne soit pas d'origine indo-européenne a-t-elle réussi à prendre sa place au XXI^e siècle ? Qu'est-ce que la culture basque aujourd'hui, et qu'est-ce qui la distingue des autres cultures ? Quelle présence internationale mérite-t-elle ?

À travers les livres de cette collection, l'Institut basque Etxepare souhaite proposer des réponses, afin de tendre la main à d'autres cultures et identités. Car se connaître mutuellement est le seul moyen de nous apprécier et de nous comprendre. Ongi etorri.

Sarrera

Tradizioa, ohitura, usadioa, aztura, ekandua. Hainbat hitz erabiltzen dira euskaraz iraganetik jasoa dugun eta ondare kontsideratzen dugun hura izendatzeko. Euskal Herriaren iruditerian, izan bertan ekoitzitakoan nola kanpotik sortutakoan, tradizioak leku esanguratsua izan du eta izaten jarraitzen du.

Luzaz, tradizioak iraganetik orainerako bidea egiten duten gizarte-mailako jarduera, ekintza eta ospakizun gisa aurkeztu izan dira. Arbasoengandik jasotakoak direnaren ideari estuki lotuta, tradizioek belaunaldien arteko transmisioa bide eta oinarri hartzen dituzte. Hona tradizio moduan identifikatzen ditugun zenbait elementu: errituak, errepresentazioak, ospakizunak, formulak, diskurtsoak eta egiteko moldeak. Guztiek dimentsio kolektibo bat plazaratzen dute. Ezin bestela. Taldeak bizi du tradizioa, bai eta biziberritu ere. Tradizioak balio eta errepresentazio zehatzak gorpuzten dituzten praktika bezala ulertu dira, iraganaren eta etorkizunaren arteko soka orainean gauzatzen dutenak. Ikuspegi honen arabera, tradizioa balio moduan ikusi izan da, bere horretan mantendu beharreko zerbait. Gizarte gehientsuenetan errotuta dagoen ikuspegi baten arabera, urterik urte modu identikoan errepikatzen den zerbait da tradizioa. Irakurketa honek, muturrera eramanda, gizartea immobilismora behartuko luke ezinbestean. Errealitateak besterik diosku, ordea. Tradizioa herri edo talde jakin baten iragana eta etorkizuna orainetik irakurtzeko tresna moduan baliatu izan da.

Hala, XX. mendearen azken laurdenera arte, antropologiak gizarte *tradizionalak* gizarte *modernoekin* kontrajarri ditu, *ahozko tradizioko* gizarteak versus *tradizio idatziaren* gizarteak. Elkarri bizkarra ematen zioten bi errealitate bereizi bezala irudikatzen ziren. Ikertzaile haiek beren burua historiadun gizarteetako kide moduan identifikatzen zuten. Ahozko gizarteei

erreparatzen zieten nagusiki eta, beren garai-kide izanagatik ere, delako gizarte tradizional haien kultura-produkzioari iraganaren lekukotza jaso eta transmititzen zuten elementu moduan begiratzen zioten. Haien gaineko bilketa-lanak lekukotza interesgarriak utzi dizkigu, hala erregratuaren beraren gainekoak nola erregratzeko aukeratutakoen gainekoak. Baina hau beste eztabaida luzeago baten parte da.

Orduko ikuspegiaren arabera, idazketak aldaketaren, bilakaeraren kontzientziaren eta jarraitutasunaren auzia dakar mahai gainera. Idatziak gertakariak betikotzeko aukera ematen duen heinean, antropologoen eta folkloristen lanek XIX. mendean jasotako tradiziozko agerraldiak geroztik aldagaitzak balira bezala irudikatzea eragin du. Ikuskera honetan tradizioa errepikapen zurrunarekin identifikatzen da, aldaketarik onartzen ez dituen –eta izan beharko ez lituzkeen– fenomeno gisa. Hain zuzen, tradizionalismoa delakoak kartsuki bere egin eta defendatuko duen ideia da. Euskal Herriko historia ez hain urrunean badugu diskurtso horren adibiderik.

Alabaina, tradizio gisa identifikatutako edozein fenomeno ikertzeko orduan, iragane-ko agerpenak aletzen hasi eta artxibo lanari ekiterakoan, azkar asko jabetuko da ikertzailea urterik urte *tradizio* moduan ezagutzen ditugun horietan aldaketak gertatzen direla: ñimiñoak eta nabarmenagoak diren aldaketak. Moldatzeko gaitasuna praktikan gauzatzen duten fenomeno sozialak izango dira, azken batean, tradizio estatua eskuratu eta denboraren joanean mantenduko dutenak. Izan ere, tradizio delakoen atzean, une oro gizarte jakin baten balioak eta interesak azaleratzen dira. Tradizioa berez garaikidea den kultur fenomeno garrantzitsua da: bizia, gizarteak sortu, bereganatu eta moldatzen duena.

Antropologoei eta historialariek erakutsi moduan, tradizioak, transmititua izateko,

Introduction

Tradizioa, ohitura, usadioa, aztura ou *ekandua*, les mots ne manquent en langue basque pour désigner notre héritage du passé, ce que nous considérons comme notre patrimoine. Dans l'imaginaire du le Pays Basque, Euskal Herria, pour les locaux comme pour les étrangers, la tradition a toujours eu et continue de revêtir une place considérable.

Longtemps, les traditions ont été présentées comme des activités, des actions et des célébrations sociales ayant fait leur chemin du passé jusqu'au présent. D'après une idée profondément ancrée, les traditions proviendraient de nos ancêtres, qui les ont fondées et transmises de génération en génération. Les rites, représentations, célébrations, formules, discours, savoir-faire et autres éléments considérés comme des traditions ont en commun leur dimension collective, car c'est bien le groupe qui vit et fait vivre la tradition. On envisage parfois les traditions comme des pratiques incarnant des valeurs et des représentations données, qui matérialisent le lien entre passé et futur dans le présent. Selon ce point de vue, la tradition est perçue comme une valeur qu'il convient de maintenir en l'état. La plupart des sociétés considèrent ainsi que la tradition est un événement qui se répète chaque année identiquement. Cette lecture, poussée à l'extrême, forcerait pourtant immanquablement la société à l'immobilisme. Or, la réalité est bien différente. La tradition peut être un outil permettant de lire dans le présent le passé et l'avenir d'un peuple ou d'un groupe.

Ainsi, jusqu'au dernier quart du XX^e siècle, l'anthropologie a opposé les sociétés dites *traditionnelles* et les sociétés *modernes*, les sociétés *de tradition orale* versus les sociétés *de tradition écrite*. Ces deux types de sociétés étaient dépeintes comme deux réalités distinctes et

opposées entre elles. Les anthropologues de l'époque se considéraient comme membres de sociétés dotées d'histoire. Ils observaient spécifiquement les sociétés orales et considéraient leur production culturelle comme des éléments recevant et transmettant des témoignages du passé, bien qu'elles soient leurs contemporaines. Les travaux de collecte sur ces sociétés ont fourni des informations intéressantes sur les données collectées, mais aussi sur les raisons qui ont mené les chercheurs à choisir telle ou telle donnée. Mais cela appartient à un débat plus vaste.

D'après le point de vue de ces chercheurs, l'écriture matérialise la conscience de l'évolution et de la continuité. L'écriture, qui pérennise les événements, conduit à une représentation immuable des manifestations traditionnelles recueillies dans les travaux des anthropologues et les folkloristes du XIX^e siècle, ceux-là même qui considèrent la tradition comme une répétition stricte, un phénomène qui ne peut –et ne doit– admettre aucun changement. Le traditionalisme s'est notamment emparé de cette idée et l'a ardemment défendue. On observe des exemples de ce discours dans l'histoire relativement récente du Pays Basque.

Pourtant, tout chercheur étudiant des phénomènes identifiés comme tradition réalisera bien vite, dès qu'il commencera à égrainer les manifestations du passé et qu'il s'attèlera au travail d'archives, que lesdites *traditions* connaissent bien demutations au fil du temps, des plus infimes aux plus évidentes. En réalité, ce sont même les phénomènes sociaux capables d'adaptation qui parviennent à gagner le statut de tradition et à perdurer. En effet, derrière les traditions d'une société se cachent ses valeurs et ses intérêts. La tradition est un phénomène culturel important, contemporain par nature,

garaian garaiko baloreetara egokitzen jakin behar du. Hau da, aldiro biziberritu egiten da eta, aldi berean, moldatu, egokitu eta gaurkotu. Azken batean, gizartearen balioen erre-presentazio edo eszenifikatze bat dira tradizioak, dagozkion gizartearen kezken arabera indartu, lausotu edo eraldatzen doazenak, iraganarekiko harreman berezi horretan betiere. Orogen gainetik, tradizioa orainalditik egindako atzera begiratua baita.

Euskal Herriaren egungo egitura administratiboak inertzia propioak eta tradizio espezi-fikoak sortu eta elikatu ditu denboran zehar; batik bat, denboraren antolaketarekin zerikusia dutenak, izan otorduen garaia nola festei eta ospakizunei lotutakoak. Jaien eta ospakizunen eremuarekin josi izan dira tradizioak; usu folklo-rearekin eta izaera erlijioso edo gremiala duten ospakizunekin identifikatu dira. Baina badira bestelako izaera duten tradizioak. Mugaz ari garen honetan, azpimarratzekoa da tradizioaren eremuan kokatzen dugun elementu horietako bat, oraindik ere, mendez mende eguneratu den bi bailaren arteko akordioa oroitarazten duen erritua izatea.

Hiru behien tratatua izenaz ezagutzen dena Erdi Arotik orain arte indarrean jarraitzen duen Europako trataturik zaharrena da. Bere jatorri zehatzaren berririk ez badugu ere, egun ospatzen den tratatuak 1375ean idatziz jaso zen epai bati egiten dio erreferentzia. Dokumentu horrek jasotzen du ordutik aurrerantzean Bearnoko Baretos bailarako biztanleen obligazioa Erronkari-ko bailarakoekiko: auzo diren bailarok goiko mendietako larreen ustiapenagatik piztutako gatazken ordainsari gisa urtero hiru behi eman behar dizkiete nafarrei. Nolanahi ere, tratatua 1375eko epaia baino askoz lehenagokoa da. Geroztik, urterik urte etengabe eraberritu da. Behiala, Europako estatu boteretsuenen artean banatuta dauden bi bailaren artean sinatutako

akordioak nazioarteko izaera hartu zuen estatuen arteko muga definitzearekin batera. XVII. mendean arazo larriak egon ziren bere jarraitutasunean, eta, gerora, inoiz istilu edo atzerapen txikiak izan dira inguruko gerra-gertaerak direla eta. XX. mendearen azken laurdenean, tradizioa ekitaldi folkloriko lehenik eta ondoren ondare-elementu bilakatu zen. Ordutik, urtero, Pirinioetako Ernazeko lepoan dagoen 262 mugariaren ingurura bertako eta nazioarteko ehunka turista iristen dira, uztailaren 13an eraberritzen den errituala bertatik bertara jarraitzeko.

Muga politikoek eta bestelako egitura-keta administratiboek errealtate espezi-fikoak eragin dituzte denboraren joanean, gizarteak, alde batean zein bestean, modu desberdinean bereganatu dituenak. Hala ere, gisa honetako faktoreei eta tokian tokiko espezi-fikotasunari uko egin gabe, hamaika dira mugaz gaindi topa ditzakegun elementu komun eta bateratzaileak. Jarraian, Euskal Herrian XXI. mendeko tradizioen panorama zabalaren baitan hautatutako zenbait adibide ekarri ditugu.

car en tant qu'objet vivant, il est en permanence recréé, reconquis et remodelé par la société.

Les anthropologues et les historiens ont démontré que la tradition, pour être transmise, doit savoir s'adapter aux valeurs de chaque époque. Ainsi renaît-elle sans cesse, tout en se façonnant, en s'adaptant et en s'actualisant. Les traditions constituent donc une représentation ou une mise en scène des valeurs d'une société, et se renforcent, se ternissent ou se transforment au gré de ses préoccupations du moment, tout en maintenant un lien privilégié avec le passé. Car la tradition est avant tout un regard tourné vers le passé depuis le présent.

L'organisation administrative actuelle du Pays Basque a créé et alimenté des inerties propres et des traditions spécifiques à travers le temps, notamment liées à l'organisation du temps, que ce soit pour les temps de repas, les fêtes ou les célébrations. Les traditions sont souvent associées aux fêtes et aux célébrations. Elles sont souvent identifiées au folklore et aux célébrations religieuses ou des corps de métiers. Mais toutes les traditions ne répondent pas à ces critères. À propos de frontières, précisément, citons en un exemple répertorié parmi nos traditions. Il s'agit d'un rite qui commémore un accord entre deux vallées, célébré depuis des siècles.

Le Tribut des Trois Vaches, qui date du Moyen Âge, constitue le plus ancien traité européen encore en vigueur. Si on ignore son origine précise, le traité que l'on continue de célébrer fait référence à un accord écrit en 1375. Ce document rend compte de l'obligation des habitants de la vallée du Baretous, dans le Béarn, envers ceux de la vallée du Roncal (Navarre) : chaque année, en compensation des désagréments liés à l'exploitation des estives de haute montagne, les Béarnais doivent faire don aux Navarrais de trois vaches. Ce traité, bien

antérieur à cette sentence de 1375, continue d'être renouvelé chaque année. Jadis, cet accord, signé entre deux vallées séparées entre deux pays parmi les royaumes les plus puissants d'Europe, a pris une envergure internationale, avec l'établissement de la frontière entre les États. Au XVII^e siècle, sa pérennité a été profondément ébranlée, puis les circonstances de différentes guerres ont provoqué plusieurs conflits et retards dans sa célébration. À la fin du XX^e siècle, la tradition devient tout d'abord célébration folklorique, pour être ensuite patrimonialisée. Depuis, chaque année, des centaines de locaux et de touristes internationaux se retrouvent au col de la Pierre Saint-Martin, autour de la borne 262, le 13 juillet, pour assister au rituel.

Les frontières politiques et autres structurations administratives ont provoqué au fil du temps des situations spécifiques, que la société s'est appropriées différemment d'un côté et de l'autre de la frontière. Toutefois, malgré les spécificités locales, les éléments transfrontaliers communs et rassembleurs sont nombreux. Nous évoquerons ici plusieurs exemples choisis parmi le vaste panel des traditions du XXI^e siècle au Pays Basque.

Jatorri misterioitsutik gizarte postindustrialera

XIX. mendeaz geroztik, Euskal Herria misterioz blaitutako herri gisa irudikatu da, iraganari estuki errotua. Iruditeria horretan, tradizioei berebiziko lekua aitortu izan zaie. Ez da harritzekoa; izan ere, garai hartakoak dira folkloristen eta lehen antropologoek lanak. Iraganari garrantzia handia ematen zioten eta ikuspegi horretatik ulertu beharra dago zein punturaino kokatu zuten tradizioa ikerketaren erdigunean. Erromantizismo garaian sortu eta garatutako irudi jakin hura bidaiaren testigantzek hauspotu eta ikertzaileen lehen hurbilketek garatu eta errotu zuten. Horien artean ezagunenetakoa, Madrilera bidean Wilhelm von Humboldt pentsalari eta estatu-politikari prusiarrak 1799an Euskal Herria zeharkatu zueneko bidaia dugu. Bertan ikusitakoak liluratuta, bi urte beranduago espresuki itzuli zen Euskal Herrira. Aparteko herri moduan deskribatu zuen Humboldttek, ezagunak zituen gainerako herrieekin eta kulturekin alderatuta, berezia.

1. Hiru Behien Tratutua San Martin Harrian.



1

Des origines mystérieuses à une société postindustrielle

Depuis le XIX^e siècle, le Pays Basque est représenté comme un pays baigné de mystère et profondément attaché à son passé et à ses traditions. Rien d'étonnant à cela, puisque l'époque correspond aux travaux des folkloristes et des premiers anthropologues, qui accordaient une place prépondérante au passé, d'où la centralité de la tradition dans leurs recherches. Cette image, qui a surgi et s'est développée à l'époque du romantisme, n'a fait que croître et s'enraciner davantage sous l'effet des témoignages des voyageurs et des premières approches des chercheurs. Parmi les témoignages les plus célèbres, citons ceux du penseur et homme politique prussien Wilhelm von Humboldt, qui traversa le Pays Basque en 1799 pour se rendre à Madrid. Émerveillé par le pays, il décida d'y retourner deux ans plus tard. Humboldt décrivit un pays exceptionnel, très différent de tous les autres peuples et cultures qu'il avait connus jusque-là.

Dès lors, le Pays Basque éveilla ainsi la curiosité de nombreux chercheurs au XIX^e siècle. Les travaux de ces parrains de la « bascologie » alimentèrent et diffusèrent la connaissance scientifique du Pays Basque et construisirent même un imaginaire spécifique, abondé par les folkloristes de l'époque : l'image d'un Pays Basque en tant que société traditionnelle et ancienne, profondément ancrée dans le passé. Cette spécificité octroya au Pays Basque et à la culture basque une place prépondérante dans la scène émergente des sciences humaines et sociales. Mais d'où venait cette spécificité si profonde et comment avait-elle pu durer jusque-là ? Le monde occidental s'intéressait vivement à la question de l'origine. L'intérêt vira presque à l'obsession et prit une place considérable dans différentes sciences et disciplines. Après la publication par Darwin de *L'origine des Espèces*, la théorie de l'évolutionnisme influença non seulement le domaine de la biologie et des sciences naturelles, mais aussi la philologie, l'anthropologie physique et la préhistoire. Par conséquent, la question de l'origine est passée au premier plan de la recherche scientifique, dans le domaine de la philologie comme dans d'autres.

Des recherches menées au XIX^e siècle par des chercheurs européens sur des textes sacrés en sanskrit, fondées sur la comparaison, affichèrent un intérêt pour l'origine et l'évolution des langues. Ces premiers philologues analysèrent les liens entre les différentes langues du monde, en étudiant la structure grammaticale, le lexique et le système vocalique d'autres langues anciennes, ce qui les amena à classer les langues en différentes *familles*. Or, dans la cartographie des langues parlées en Europe, le basque apparut isolé, hors de la grande famille des langues indoeuropéennes et sans lien avec aucune autre langue, vivante comme morte.

Paradoxalement, les transformations les plus radicales que le Pays Basque ait connues datent de cette époque, avec la fin des guerres carlistes et la victoire des libéraux, qui ouvrirent le marché et favorisèrent

1. Tribut des Trois Vaches au col de la Pierre Saint-Martin.

Euskal Herriak hamaika ikertzaileren interesa piztu zuen XIX. mendean. *Baskologiaren* aita ponteko izan ziren haien lanek, Euskal Herriari buruzko ezagutza zientifikoa elikatu eta zabaltzeaz gain, iruditeria jakin bat eraiki zuten, orduko folkloristen lanek areagotu zutena: Euskal Herria gizarte tradizional eta antzinakoaren irudia, iraganari estuki errotua zegoena. Bereztasun horrek, bidea egiten hasi berriak ziren giza zientzien eta gizarte-zientzien agertokian, Euskal Herria eta euskal kultura oro har aparteko tokian jarri zituen. Nondik zetorren aparteko bereztasun hori, eta nolatan iraun zuen ordura arte? Mendebaldean jatorriarekiko interes bizia piztu eta zabaldu zen, kasik obsesio bihurtzeraino, eta zientzia eta diziplina desberdinetan isla eta pisu nabarmena izan zuen. Darwinek *Espezien jatorriaz* argitaratu ondoren, eboluzionismoaren teoriak, biologian eta orokorrean natur zientzietan ez ezik, filologia, antropologia fisikoa eta historiaurrean eragina izan zuen. Finean, jatorriaren auzia ikerketa zientifikokoaren lehen planora ekarri zuen; esaterako, filologiaren sorburura.

XIX. mendean sanskritoz idatzitako testu sakratuei buruz Europako ikertzaileek egindako azterketatan, konparazioa oinarri hartu zuten lanetan, hizkuntzen jatorriari eta bilakaerari buruzko jakin-mina zegoen. Antzinako beste hizkuntza batzuen egitura gramatikala, lexikoa eta sistema bokalikoa alderatuz munduko hizkuntzek elkarren artean duten harremana arakatzeari ekin zioten lehen filologo haiek, elkarren arteko loturak islatzeko hizkuntzak *familiatan* multzokatuz. Ekinbide horretan Europan hitz egiten ziren hizkuntzek osatutako kartografian euskara bereiz agertzen da, Indoeuropar hizkuntza-familia handitik kanpo, eta gainerako hizkuntza biziengandik eta hilengandik bereizia.

Paradoxikoki, garai hartakoak dira Euskal Herriak ezagutu dituen eraldaketa erradikalenak, Karlismaldien amaierarekin eta liberalen garai-penarekin merkatua ireki eta industrializazioari bide eman zioten. Oso hamarkada gutxiren buruan, herri koxkor zirenak hirigune jendetsu bilakatu ziren eta zenbait kasutan biztanleria bikoiztu, hirukoiztu eta are lauukoiztu ere egin zen bertako landa-eremuetatik eta urrunagoko probintzietatik lanera joandakoekin. Bilboko ezkerraldearen eraldaketa da bilakaera



2. Izaroko Teila Jaurtiketa.

2. Lancer de tuile à Izaro (Biscaye).

l'industrialisation. En quelques décennies seulement, des petits villages basques devinrent des agglomérations très peuplées. Dans certaines villes, sous l'effet des nouveaux habitants venus travailler depuis les zones rurales environnantes et les provinces plus éloignées, la population fut doublée, triplée, voire quadruplée. L'exemple le plus emblématique de cette évolution radicale est la transformation de la rive gauche de Bilbao en Biscaye. En effet, en l'an 1900, Barakaldo comptait 15 013 habitants, alors que le recensement de 1857 n'en dénombrait que 2 369. En quarante ans, la population fut multipliée par sept, sous l'effet des ouvriers attirés par les mines, les chantiers navals et autres usines de Bilbao et des environs. En très peu de temps, le paysage tout comme la situation démographique furent totalement urbanisés. Comme aux quatre coins de la planète, l'industrialisation bouleversa les modes de vie, les valeurs et l'organisation sociale.

Face à ces transformations, une représentation de société dite traditionnelle se façonna puis se diffusa, notamment à la fin du XIX^e siècle et au cours du XX^e siècle. Cette vision connut un certain écho au Pays Basque comme au sein des communautés basques disséminées dans le monde et parmi les visiteurs et chercheurs venus de l'étranger. Par conséquent, au cours des deux derniers siècles, une conception bien précise du Pays Basque s'est construite, renforcée et diffusée, dans laquelle la tradition occupe une place capitale, alimentant souvent un imaginaire et des attentes spécifiques, faisant accroître l'immobilisme au nom de la pérennité. Pourtant, la réalité du Pays Basque contemporain montre un panorama bien différent.

Au Pays Basque comme ailleurs, selon l'approche essentialiste du siècle dernier, la tradition a été pensée et concrétisée comme un patrimoine intouchable hérité du passé. L'un des exemples les plus parlants des dernières décennies est incarné par l'opposition à la participation des femmes à différentes fêtes et célébrations du Pays Basque, au nom de la tradition, positionnement très violent dans certaines communes basques. Dans la comarque du Bidasoaldea (Guipuscoa), le conflit de la participation des femmes aux *alardes*, défilés traditionnels militaires, a duré plus d'un quart de siècle. Dans d'autres communes, en revanche, les femmes ont intégré les fêtes sans trop d'opposition, bien que cela n'ait pas été du goût de tous les premiers temps. Malgré les résistances, les traditions sont bel et bien vivantes et la participation des femmes finit par se concrétiser, plus ou moins rapidement, dans la plupart des communes. Les traditions s'adaptent ainsi aux valeurs et aux attentes de la société basque d'aujourd'hui, car c'est leur seul moyen de perdurer.

La société basque actuelle a peu de choses à voir avec la société rurale qui fut frappée de plein fouet par l'industrialisation du XIX^e siècle. Si l'industrie demeure un poste important de l'économie locale, son poids est incomparable à celui qu'elle a connu par le passé. On parle même parfois avec raison de Pays Basque postindustriel. En outre, l'industrialisation a développé ses propres traditions, que ce soit dans les méthodes de travail, les valeurs, les loisirs, les modèles de protestation et les célébrations liées au travail. Certaines valeurs, actions et points de vue de l'époque sont arrivées jusqu'à nous. D'autres éléments que nous considérons comme *traditionnels* sont apparus en réponse à l'industrialisation, et nombre d'entre eux se sont imposés comme s'ils avaient été pratiqués depuis toujours. Certaines traditions ont été créées et encouragées par l'*abertzalisme*, le nationalisme basque au XIX^e siècle –concours de danses basques, par exemple–. D'autres ont été violemment reniées –le petit accordéon diatonique ou *trikiti*, importé

erradikal honen adibiderik behinena. Esaterako, 1900. urtean, Barakaldok 15.013 biztanle zituen –1857ko erroldan 2.369 besterik ez ziren–. Berrogei urteren buruan biztanleria zazpikoiztu egin zen Bilboko eta inguruko meategietara, ontzioletara eta bestelako lantegietara erakarritako langileekin. Oso denbora tarte laburrean paisaia eta errealitate demografikoa guztiz hiritartu ziren. Munduko beste tokietan gertatu moduan, industrializazioak bizimoduari, baloreei eta gizarte-antolaketari dagokionez aldaketa nabarmenak ekarri zituen.

Eraldaketa horien guztien aurrean gizarte tradizional delakoaren irudikapen jakin bat eratu zen, bai eta gerora zabaldu ere, batik bat XIX. mende amaieran eta XX. mendean zehar. Ikuskera honek Euskal Herrian bertan eta munduan barreiatuta dauden euskal komunitateengan eta kanpotik etorritako bisitariengan zein ikertzaileengan oihartzuna izan zuen. Horrenbestez, azken bi mendeetan Euskal Herriaren iruditeria jakin bat eraiki, sendotu eta zabaldu zen non tradizioari berebiziko tokia aitortu zitzaion, sarritan iruditeria eta igurikimen jakin batzuk elikatuz, jarraitutasunaren izenean, immobilismoa hauspotuz. Ideal bati erantzuten zion iruditeria eraiki zen. Errealitateak, aldiz, oso bestelako irudia erakusten digu.

Beste hainbat tokitan bezala, aurreko mendeko hurbilketa esentzialistari jarraiki, iraganetik jasotako ondare ukiezin moduan pentsatu eta egikaritu izan da tradizioa. Azken hamarkadetan horren adibide agerikoenetako bat izan da Euskal Herriko zenbait festa eta ospakizunetan, tradizioaren izenean, emakumeen parte-hartzearen kontrako posizionamendua; zenbait herritan modu biziki bortitzean gertatu dena. Bidasoaldeko alardeen kasuan gatazka mende laurden pasa luzatu da. Beste herri batzuetan, aldiz, emakumeen parte-hartzea gatazka nabarmenagirik gabe gertatu zen, nahiz eta hasierako urteetan guztien gustukoa ez izan. Erresistentziak erresistentzia, tradizioak biziak dira, eta, erritmo desberdinetan bada ere, herri gehientsuenetan emakumeen parte-hartzea egikaritzen ari da. Euskal gizartearen balio eta eskakizunetara egokituz doaz tradizioak, bizirik iraungo badute bederen.

Egungo euskal gizarteak zerikusi gutxi du XIX. mendeko industrializazioak bete-betean harrapatu zuen nekazaritza-gizartearekin. Industriak oraindik ere ekonomian garrantzia izaten jarraitzen badu ere, ez du inolaz ere iraganeko pisua, eta zenbaitetan Euskal Herri postindustrialaz hitz egitea zuzenagoa da. Horrez gain, industrializazioak ere bere tradizio propioak garatu zituen, izan lan-moldeetan, balioetan, aisialdian eta protesta-ereduetan edo lanari lotutako bestelako ospakizunetan. Orduko zenbait balore, ekintza eta ikuskera guregana heldu dira. Egun *tradizionaltzat* jotzen ditugun beste hainbat, industrializazioari erantzun moduan agertu ziren eta horietako asko azkar batean betidanik praktikara eraman balira bezala finkatu ziren. Batzuk, euskal abertzaletasunak sortu eta sustatu zituen XIX. mendean –dantza solte txapelketak, esaterako–. Beste batzuk bortizki arbuiatuak izan ziren –trenbi-dean lanera etorritako italiar beharginek ekarritako soinu txikia edo trikitia, esaterako–. Biak ala biak, hain harrera desberdina izanagatik, folkloreaken parte kontsideratu dira luzaz. Azkenik, badira gure artean duela bi hamarkadatik baino ez dauden tradizioak, zeinak honezkero guztiz errotuta dauden euskal gizartearen. Horien guztien adibide gutxi batzuk ekarri ditugu, Euskal Herriko tradizioen panorama aberats eta biziaren lekuko.

3. Zarauzko Euskal Jaia.



3. Fête basque de Zarautz (Guipuscoa).

par les Italiens venus travailler sur les voies ferrées, entre autres–. Ces deux traditions, malgré leur accueil très différent, ont longtemps été considérées comme parties intégrantes du folklore basque. Enfin, certaines traditions qui n'existent que depuis deux décennies sont totalement ancrées dans la société basque. Nous avons souhaité en présenter ici quelques exemples, témoins du paysage riche et vivant des traditions du Pays Basque.

Baserriaren zentraltasuna

Euskal Herria aipatzerakoan, paisaia jakin bat nabarmendu izan da: lurralde menditsua non berdea kolore nagusia den eta mendi hegaletan barreiatu-tako baserri teilatu gorritz jantziak dauden. Europako eta munduko beste hainbat tokitan gertatu moduan, XIX. mendean sendotu egiten da herrialde bat paisaia jakin batekin identifikatzeko joera. Ingalaterrako landa-eremua da horien artean ezagunenetakoa. Euskal Herrian, orografia aldiera ikaragarriak ditu berez mugatua den eremu batean, geografia aberats eta batez ere anitza osatuz. Hala, paisaia aldetik ikaragarritzko aniztasuna dago eta oso kilometro gutxiren buruan kostaldetik barnealdera joan gaitzkeen moduan, Pirinio aldetik lautadarako bidea irekitzen da. Ur isuriaren alde banatan, antropologok aztertutako bi habitat mota desberdin dira nagusi: mediterraneo aldean habitat bildua eta atlantikoko aldean, aldiz, habitat sakabanatua. Azken honetan oinarritu da XIX. mendeaz geroztik gailendu den paisaia-iruditeria non baserriak berebiziko tokia izan duen. Kulturaren esparrutik, batik bat idazleen eta margolarien eskutik, zabaldu zen paisaiaren eraikuntza. Orduko euskal abertzaletasunari esker zilegitasuna hartuz joan zen irudi hori indartu eta areagotu egin zen, bai eta diaspora testuinguruetan nagusitu ere. Iruditeria-eraikuntza honek Euskal Herriko gainerako beste paisaia humanizatuak bazter utzi zituen, hala nola itsasoari lotutako bizimoduak, lautadakoak eta, batez ere, garai bertsuan ikaragarri hazten ari ziren hirien errealtateak.

Euskal Herri atlantikoko ezaugarria izanik ere, baserria izan da zailtzarik gabe euskal iruditerian arrasto sakonena utzi duen egitura eta gizarte-antolaketa. Luzaz, kanpoko zein bertako idazle, ikertzaile eta artisten eskutik iruditeria jakin bat ardazu da non Euskal Herriko gizarte tradizionala baserriari lotua ageri zaigun. Baserria, euskal mundu tradizionalaren funtsezko instituzioa denez gero, folkloristen eta antropologoen aztergai izan da. Gaur egun, lehen sektoreko gainerako jarduerekin parekatuz ekonomian pisu handirik ez badu ere, historiaren eta kulturaren ikuspegitik, bai eta sinbolikoki irudikatzen dituen balioengatik ere –identitate, balore eta izateko manera jakin batzuei lotuak–, garrantzi nabarmena izaten jarraitzen du.

Familia-unitatean oinarritutako nekazaritza-ustategia da berez baserria. Etxea bera, etxeokak eta haren inguruko lursailak batasun baten parte dira. Baserritarrarentzat harreman estua dago nekazaritza-ustategiaren eta familiaren artean. Iragan ez hain urrun batean, etxekoen artean egiten zituzten lan guztiak eta baserriak familia mantentzeko adina eman behar zuen. Izan ere, familia bakar batek gobernatzen zuen baserria. Oinordeko bakarraren sistema izan du euskarri baserriak bizirik irauteko. Azken batean, baserri handien kasuak bazter utzirik, gehien-gehientsuenetan iraupen-ekonomia eta bizimodua izan baitira mendeetan baserriaren ezaugarri nagusiak.

Baserri bakoitzak izen propioa du. Horietako asko abizen bilakatu ziren Erdi Aroaren amaieran. Hala, inguruko abizen antroponimoekin alderatuta, Euskal Herrian halakoak badauden arren toponimikoak nagusi dira. Leku izenak sarri baserriak ingurune fisikoko duen kokaguneari egiten

4. Ezkioko Igartubeiti Baserri Museoa.

Centralité de la ferme



4. Musée Igartubeiti. Ezkio (Guipuscoa).

On ne peut évoquer le Pays Basque sans que vienne à l'esprit de son interlocuteur un paysage bien particulier, montagneux et verdoyant, garni de fermes aux toitures rouges disséminées sur les flancs des montagnes. Comme dans différents pays d'Europe et du monde, au XIX^e siècle, la tendance à identifier un pays à un certain paysage se consolide. Le paysage rural anglais en est un des exemples les plus saillants. Quant au relief du Pays Basque, il est extrêmement varié pour un territoire si réduit, avec une géographie riche et diverse. Ses paysages sont d'une extrême variété : en quelques kilomètres, on peut se rendre du littoral à l'arrière-pays et des Pyrénées à la plaine. Sur les deux versants, deux types d'habitat principaux ont été étudiés par les anthropologues : l'habitat concentré sur le versant méditerranéen et l'habitat dispersé sur le versant atlantique. L'imaginaire paysager qui s'est imposé depuis le XIX^e siècle, dans lequel la ferme occupe une place prépondérante, est fondé sur le schéma atlantique. Du point de vue culturel, la construction du paysage a été diffusée par les écrivains et les peintres. Cette image, légitimée par l'*abertzalismo* basque de l'époque, s'est renforcée au point de s'imposer même dans la diaspora. Cette construction de l'imaginaire a laissé de côté les autres paysages humanisés du Pays Basque, tels que les modes de vie liés à la mer ou à la plaine, et surtout la réalité urbaine, qui se développait pourtant énormément à cette époque.

Bien que représentante du Pays Basque atlantique, la ferme constitue sans aucun doute la structure et l'organisation sociale ayant marqué

dio erreferentzia. Badira, halaber, lanbidea aipagai dituzten izenak, bai eta, baserria –edo etxea, sarri biak ala biak sinonimo moduan erabili ohi dira– aitzinagoko etxe batekiko harremanean kokatzen dutenak. Horrela gertatzen da Etxeberrria edo Etxebarria, Goikoetxea edo Garaikoetxea, Beherekoetxea edo Etxenagusia moduko abizenekin. Hori guztia dela eta, esan ohi da oraindik ere baserriek bertan bizi direnen identitate edo izanaren arteko lotura egikaritzen dutela. Eta, behinola etxearen izena bertan bizi zirenen abizen bilakatu bazen, etxearen izenak izengoiti funtzioa bete ohi du bereziki landa-eremuan. Interesgarria da aipatzea, bidenabar, belaunaldiz belaunaldi transmititu daitekeen zerbait dela, komunitateak erreferentziazko termino gisa ulertuz gero betiere. Egun ez da hain arraroa oraindik ere jendea izen-abizenaz ezagutu ordez, baserriaren edo etxearen izenaz ezagutzea.

Baserrietan nekazaritza eta abelazkuntza uztartu izan da kasurik gehientsuenetan eta baserria oinarri duen iraupen-ekonomiak paisaia jakin bat sortu du. Horren sinbolo paradigmatico gisa uler dezakegu belar-meta: baserriak lur komunalean –horretarako aukera dauden kasuetan– zein bere lurretan moztu eta lehortutako belar edo garoz egindako metak. Ziri baten funtzioa duten egurrezko egitura ximple baten inguruan pilatuta, belar edo garoak azienda neguan bizirik irautea bermatzen zuen: azpietarako ez ezik, elikagai metatu gisa erabiltzen ziren neguan. Izan ere, larreetan bazkarik ez zegoenean, belar ondu hori ematen zitzaion aziendari. XX. mendearen amaierara arte ohikoak ziren belar-meten tokia, soroetako bazterretan pilatutako plastiko ilunean bildutako belar-bolak hartu dute Mendebaldeko gainerako tokietan bezala. Alta, eremu atlantikoaren orografia dela eta, oraindik ere toki malkartsuetan belar-metak ikus daitezke.

Etxearen egitura, baserriaren ardatza den aldetik, instituzioaren autonomia ekonomikoaren eta sozialaren ispilu da. Baserriaren tipologia ikertu dutenen lanek erakusten dutenez, askotarikoa da eraikinari dagokionean, eta eskualde-aldaera berezituak aspalditik ezagutzen dira. Mota zabalduena, teila gorritz estalitako bi ur isuriko teilatua duen hiru solairuko eraikina da. Bertan azienda, etxeokak eta baserriko uzta kokatzen dira, hurrenez hurren ukuilu, bizitoki eta ganbara edo sabaian. Baserria bizitoki ez ezik bizibidea izan da, gainerako kultura tradizionaletan gertatu moduan. Oraindik ere, hala izaten jarraitzen du nekazaritza eta abelazkuntzaren aldeko apustua egin duten etxaldeetan, neurri apalago batean bada ere.

XX. mendean, baserriaren bilakaera goitik behera aldatu zen. 1900. urtera arte, baserriaren autonomia ekonomikoa ia erabatekoa zen. Baserrian bertan ekoizten zen bizitzeko behar zen guztia. Gauza gutxi erosten ziren, besteak beste, diru gutxi izaten zutelako baserri-munduan non truke-ekonomiak ezinbesteko garrantzia zuen. Hala, truke bidez eskuratu ohi zen sarri baserrian lortu ez zitekeena. Dieta sinplea zen: zopa, taloak eta morokilak, ahia, esnea, esnekiak, babarrunak eta, oso aldian behin, okela. Edari nagusiak esnea eta sagardoa ziren, eta horiek ere etxean egiten ziren. Urtean behin txerri bat hiltzen zuten etxeokak eta haragia ontzen jarri, gatz edo gantzetan, urte osoan iraun zezan. 1960ko hamarkadarako baserritarren dieta askoz ere zabalagoa zen, azokan eta dendetan era askotako janariak erosteko modua zutenez. Baserriaren erregimen ekonomikoa guztiz aldatu zen, iraupen-ekonomiatik merkatu-ekonomiara igaroz.

Mendeetan zehar landa-eremuko dieta tradizionalaren oinarrian bere garaian ezezagunak ziren produktuak egon dira; esate baterako, Ameriketatik ekarritako artoa eta babarrunak edo indabak. Euskal Herriko klima eta orografiara bikain egokitu ziren eta bereziki emankorrak izan dira. Berriak izanagatik ere, oso harrera ona izan zuten baserri-munduan

le plus profondément l’imaginaire basque. Longtemps, les écrivains, chercheurs et artistes locaux et étrangers ont façonné un imaginaire bien précis dans lequel la société traditionnelle du Pays Basque apparaît liée à la ferme. La ferme, en tant qu’institution fondamentale du monde traditionnel basque, a constitué un sujet d’étude pour les folkloristes et les anthropologues. Si son poids économique est aujourd’hui moins important que celui des autres activités du secteur primaire, elle reste fondamentale du point de vue historique et culturel, mais aussi du fait des valeurs qu’elle symbolise –liées à des identités, des valeurs et des personnalités bien précises–.

La ferme est une exploitation agricole fondée sur l’unité familiale. La maison, les membres du foyer et les terres environnantes font partie de ce tout. Pour les paysans, l’exploitation agricole et la famille sont très étroitement liées. Dans un passé relativement proche, tous les travaux de la ferme étaient partagés entre les membres de la famille, et la ferme devait produire suffisamment pour subvenir aux besoins du foyer. Chaque ferme était régie par une seule famille. Pour perdurer, le modèle de la ferme s’est fondé sur le principe de l’héritier unique. Hormis pour certaines grandes fermes, c’est finalement l’économie et le mode de vie de subsistance qui ont caractérisé la ferme pendant des siècles.

Chaque ferme porte son propre nom, dont beaucoup sont devenus des noms de famille à la fin du Moyen Âge. Ainsi, contrairement aux régions environnantes, les noms de famille anthroponymiques sont largement minoritaires au Pays Basque, où les noms toponymiques prédominent. Les noms de lieux font souvent référence à l’emplacement de la ferme dans son environnement physique. On trouve aussi des noms qui évoquent une profession ou encore la relation entre la ferme –ou la maison, les deux étant très souvent synonymes– et une maison précédente. En témoignent des noms tels que Etxeberria ou Etxebarria (maison nouvelle), Goikoetxea ou Garaikoetxea (maison du haut), Beherekoetxea (maison du bas) ou Etxenagusia (maison principale). On considère donc souvent que les fermes expriment encore aujourd’hui l’identité de leurs habitants. S’il est arrivé jadis que le nom de la maison devienne le nom de famille de ses occupants, le nom de la maison a principalement revêtu la fonction de surnom, notamment dans le milieu rural. Il est intéressant de constater, au passage, que ce surnom peut se transmettre de génération en génération, si la communauté s’en empare comme terme de référence. Il n’est pas rare, encore aujourd’hui, que les gens soient plus connus par le nom de leur ferme ou de leur maison que par leur nom de famille.

Historiquement, agriculture et élevage ont généralement été associés, et l’économie de subsistance au fondement des fermes a façonné un paysage bien particulier, comme en témoigne le symbole paradigmatique de la meule de foin, ces amas d’herbe ou de fougère coupée que la ferme prélève sur des terrains communaux –quand c’est possible– ou sur ses propres terres, pour les faire sécher. Amoncelé autour d’un simple pic de bois, le foin ou la fougère permettait au bétail de survivre l’hiver : cela servait non seulement de litière, mais aussi d’aliment pour la saison hivernale. Ainsi, quand la nourriture manquait dans les champs, les bêtes étaient nourries au foin. Les meules de foin, très répandues jusqu’à la fin du XX^e siècle, ont peu à peu été remplacées par les balles qu’on observe aujourd’hui, sous bâches, dans les champs, comme dans l’ensemble des pays occidentaux. Les meules de foin perdurent encore, toutefois, dans certaines zones très escarpées, compte tenu du relief de cette zone atlantique.

eta luzaz egunerokoan jaten ziren. Ordutik, babarrunak jaki preziatu bilakatu dira eta egun ez dira lehen bezala egunero jaten. Jatetxe zenbaiten espezialitate bilakatu dira eta familia zein lagunarteko ospakizun edo otordu berezietako jaki nagusi dira, aza-olioak eta txerri-hiltze edo txerri-bodatik ekoiztutako sakramentuekin lagunduta. Azken hauek sinbolikoki seinalatuak izan dira, auzoen arteko harremanetan opari gisa ematen baitzitzaion lehen auzoko etxekoei. Taloak, aldiz, festa-egun seinalatuetan jaten dira gaur egun, ia beti etxetik kanpo.

Baserriaren erabateko autonomia ekonomikoaren irudi hura, ordea, guztiz aldatu zen XX. mendean. Euskal nekazariek mundu modernoak eskura jartzen zizkien erosotasunak eta etekin materialak bereganatu zituzten. Truke-ekonomia bazter utzirik, salerosketa bidez, baina bereziki baserriko lana lantegikoarekin batera uztartuz, dirua irabazten eta gastatzen hasi ziren, ordura arte inoiz ez bezala. XX. mende osoan zehar ohikoa izan da kalera lanera joatea, askotan lantegietara jaitsitako baserritarrek bi

5. Talogileak Donostiako Santo Tomas Azokan.



5. Façonnage de talos à la Foire Santo Tomas. Saint-Sébastien (Guipuscoa).

La maison constituant l'axe central de la ferme, sa structure reflète l'autonomie économique et sociale de l'institution. D'après les travaux de recherche sur la typologie des fermes, les structures du bâtiment sont diverses et présentent des particularités régionales. Le type de ferme le plus répandu est le bâtiment à trois étages surmonté d'un toit à deux pans recouvert de tuiles rouges. On y abrite le bétail, les membres de la famille et les récoltes de la ferme, respectivement à l'étable, dans l'habitation et au grenier. Historiquement, la ferme est non seulement un logement, mais aussi un lieu de travail, au Pays Basque comme dans d'autres cultures traditionnelles. C'est encore le cas aujourd'hui, bien que dans une moindre mesure, dans les exploitations qui ont fait le pari d'associer agriculture et élevage.

Au XX^e siècle, l'évolution de la ferme a connu une véritable révolution. Jusqu'en 1900, les fermes ont connu un régime d'autarcie presque total. Tout ce qui était nécessaire à la vie était produit au sein même la ferme. On achetait peu, notamment parce qu'on possédait peu d'argent dans le milieu paysan, où l'économie du troc était prédominante. On obtenait par troc ce qu'on ne pouvait produire soi-même à la ferme. Le régime alimentaire était simple : soupe, galettes et bouillies de maïs (respectivement, talo et morokil), crème, lait, haricots et, très occasionnellement, un peu de viande. Les boissons principales, le lait et le cidre, étaient également produites à la ferme. Une fois par an, on tuait un cochon et on stockait la viande dans du sel ou du saindoux, pour la conserver toute l'année. Dans les fermes des années 1960, le régime alimentaire était bien plus varié, car on pouvait acheter toute sorte de nourriture au marché et en magasin. Le régime économique de la ferme s'en est trouvé totalement bouleversé, passant d'une économie de subsistance à une économie de marché.

Au fil des siècles, des produits jadis inconnus au Pays Basque ont constitué la base du régime alimentaire traditionnel des zones rurales, comme le maïs, venu d'Amérique, et les haricots ou fayots, qui se sont extrêmement bien adaptés au climat et au relief du Pays Basque et se sont montrés très prolifiques. Ces aliments méconnus ont reçu un très bon accueil dans le milieu agricole, au point de devenir la base de l'alimentation quotidienne. Aujourd'hui, les haricots sont devenus des mets de choix et on ne les consomme plus quotidiennement. Plusieurs restaurants en ont fait leur spécialité, et ils accompagnent souvent les réunions de famille et les repas de fête, flanqués de chou à l'huile et des *sacramentos* produits lors des cochonnailles. Ces derniers sont même couronnés d'une portée symbolique, car on les offrait jadis à son premier voisin en témoignage de sympathie. Les galettes de maïs *talo* accompagnent aujourd'hui toutes les festivités basques ; on les mange moins chez soi qu'à l'extérieur.

Mais cette autonomie économique totale des fermes a totalement changé au XX^e siècle. Les paysans basques ont peu à peu cédé au confort et au profit matériel apportés par le monde moderne. Abandonnant l'économie du troc, ils ont commencé à gagner et à dépenser de l'argent, à vendre et à acheter, mais surtout, à associer travail de la ferme et travail à l'usine, ce qui était inédit. Au XX^e siècle, beaucoup de paysans ont complété leur travail à la ferme avec un autre emploi, notamment à l'usine, au prix d'efforts considérables. Ainsi, la ferme, tout en étant moins centrale, est restée une source d'exploitation dans de nombreuses vallées, en complément des revenus économiques de la famille.

Pendant des siècles, la ferme a constitué l'institution principale de la société paysanne. Le mot « ferme » renferme tout un concept, un pan socioéconomique (exploitation agricole et membres de la famille), un mode de

jarduerak esfortzu handiz uztartu izan dituzte. Hala, maila apalago batean bada ere, ustiapen moduan mantendu da baserria bailara askotan, oraingoan, familiaren ekonomiaren osagarri, lan eta ahalegin askoren truke.

Mendeetan baserria izan zen nekazaritza-gizarteko instituzio nagusia. Baserri hitzak kontzeptu oso bat adierazten du, atal sozioekonomiko bat (nekazaritza-ustiategia eta etxeko jendea), bizitzeko modu bat (baserritarra kaletarraren aurrean) eta euskal tradizioen sinbolo bat. Natura ingurune gizatiartu baten elementu adierazgarria da baserria. Ur isuri atlantikoan habitat sakabanatua gailentzen da, etxeak bata bestearengandik urruti daude, eremu aldapatsu eta hezean barreiatuta. Baserri hoberenak egutera aldean eraiki izan dira, hainbatetan lur-eremu zabal eta lauez inguratuta. Historikoki halako guneeetan topa ditzakegu baserririk zaharrenak. Aitzitik, beranduago eraikiak izan direnak toki ospel eta malkartsuagoetan egon ohi dira.

vie (paysan versus citadin) et un symbole des traditions basques. La ferme est un élément représentatif d'un environnement naturel humanisé. Sur le versant atlantique, l'habitat dispersé prédomine, les maisons sont éloignées les unes des autres, disséminées sur des zones escarpées et humides. Les meilleures fermes sont situées sur des parcelles ensoleillées, souvent entourées de vastes terrains plats. C'est dans ce type de lieux qu'on trouve les fermes les plus anciennes, alors que les plus récentes sont souvent situées dans des lieux plus sombres et escarpés.

Auzoa eta auzolana

Landa-eremuan baserriak administrazio-barrutietan edo auzoetan antolatuta daude. Auzoa zer den adieraztea ez da dirudien bezain erraza; esan genezake barruti bat dela, bere izen propioa duena eta mugak ongi zehaztuak dituen. Hala ere, beste toki batzuetan ez bezala, euskal auzoak ez du berezko egitura-politikorik, Espainiako eta Hego Amerikako zenbait lekutan gertatzen den bezala. Auzotasunak baditu bi ezaugarri nagusi: batetik, auzokoek beren arteko harremanei eutsi egiten diete beti; bestetik, harreman horiek proportzio bat gordetzen dute ematen denaren eta hartzen denaren artean. Auzokoek artean sortzen diren loturek eta betebeharrak ehuntzen dituzte harreman ekonomiko eta sozialen sarrerik sendoenak. Iraganean, auzotasun-sarea, bereziki auzo hurrena edo lehen auzoa deiturikoa –izendapenak baserriarengandik hurbilen dagoen baserriko biztanleak deskribatzen ditu–, baserriaren iraupenerako funtsezkoa zen, eta bi etxeak elkarrekiko harremana zuten.

Hala, etxe bakoitzak lehen auzoaren beharra zeukan premiazko obligazio eta eginbeharretarako; larrialdietarako, adibidez. Hainbat eginkizun familiako

6. Auzolana Lazkaomendin.



6

Voisinage et travail collectif

En zone rurale, les fermes sont organisées en divisions administratives ou en quartiers. La notion d'*auzo* (quartier), au Pays Basque, n'est pas aussi simple qu'il y paraît. Ce sont des genres de circonscriptions, qui portent leur propre nom et dont les frontières sont clairement délimitées. Toutefois, contrairement à des régions espagnoles ou sud-américaines, les quartiers basques ne possèdent pas de structure politique propre. La vie de quartier présente deux caractéristiques principales : d'une part, les habitants du quartier entretiennent toujours des relations ; d'autre part, ces relations sont basées sur un équilibre entre ce que chacun donne et ce qu'il reçoit. Les relations économiques et sociales les plus solides reposent ainsi sur les relations de voisinage, c'est-à-dire, liens et les devoirs existant entre voisins. Il y a quelque temps, le réseau du quartier, notamment le voisin le plus proche ou premier voisin –qui désigne les habitants de la ferme la plus proche de sa ferme– était indispensable à la survie de la ferme et les deux fermes les plus proches entretenaient d'étroites relations.

Ainsi, chaque maison avait besoin de son premier voisin pour accomplir ses obligations et devoirs indispensables ; pour les urgences, par exemple. Certains devoirs, plutôt que d'être confiés aux membres de la famille, étaient partagés entre voisins, voire entièrement confiés aux voisins. En cas d'accident, le premier voisin était informé avant quiconque. Il avait notamment un rôle symbolique prépondérant lors des rites funéraires. Quand un membre de la famille décédait, c'était le premier voisin qui informait le prêtre et l'autorité civile. Il était également chargé des funérailles et du cercueil, ainsi que de contacter la famille du défunt. Les premiers jours du deuil, le premier voisin se chargeait des travaux agricoles du défunt. L'importance de cette relation privilégiée apparaît même dans certains dictons et proverbes basques. On dit par exemple que le premier voisin vaut parfois mieux qu'un parent éloigné.

Les relations de voisinage répondaient au principe de réciprocité dans la société dite traditionnelle. Pour certains travaux, l'aide des voisins était indispensable et continue de l'être. L'entraide était systématique, notamment, pour le fauchage des prés et autres travaux. De même, le système d'entraide au-delà de la ferme était fondamental, certains travaux communaux étant effectués entre toutes les maisons du village, comme le défrichage des forêts et montagnes ou l'entretien de la voirie. C'est ce qu'on appelle *auzolana*, littéralement « travail de voisinage ». Pour certains, c'est sur le fondement de ce travail d'équipe qu'ont émergé les nombreuses associations et organisations non-gouvernementales présentes aujourd'hui au Pays Basque, ainsi que l'importance et le dynamisme des initiatives et projets participatifs dans le domaine social. Il semblerait donc que le réseau d'entraide mutuelle du passé ait porté ses fruits au-delà de la ruralité.

C'était le cas, par exemple, des travaux de fabrication du cidre. À l'origine, le son de la *txalaparta* sonnait l'appel au travail d'équipe. Cet instrument de musique, qui a acquis une importance considérable dans la

6. Travail de voisinage à Lazkaomendi (Guipuscoa).

kideen eskuetan utzi beharrean, auzoekin partekatzen ziren edo haien esku uzten ziren. Ezbeharren bat sortzen zenean, lehen auzoari ematen zitzaion, kanpoko beste inori baino lehen, berria. Hala gertatu ohi zen izaera sinboliko nabarmena duten heriotza-errituekin. Etxean norbait hiltzen zenean, lehen auzoak ematen zien heriotzaren berri apaizari eta agintari zibilei; auzoa arduratzen zen hiletaz eta zerraldoaz, eta bera jartzen zen harremanetan hildakoaren familiako senideekin. Aurreneko dolu-egunetan, lehen auzoak bere gain hartzen zituen zendutakoaren baserriko lanak. Lehen auzoarekin edo auzo hurkoarekin harremanen garrantzia esaera zaharretan eta atso-titzetan ere jasotzen da; batzuetan senideen aurretik ere jartzen da lehen auzoa: «Hobe senide urrunekoa baino auzo hurkoa».

Auzoen arteko harremanak elkarrekikotasun-printzipioari erantzun dio gizarte tradizionala delakoan. Hainbat lanetarako, auzoen laguntza ezinbestekoa zen eta oraindik ere hala da, esaterako belar-mozte edo bestelako lanetan elkar laguntzen zuten. Era berean, elkar laguntza-sistema baserriaz gairik mailan funtsezkoa izan da, herrian etxe guztien artean burutzen zituztelako hainbat herri-lan; esate baterako, mendi- eta baso-garbiketak edo bide-konponketak. Auzolana esaten zaio horri. Hainbaten ustez, auzolanaren pisuaren oinarrian dago Euskal Herrian egun dagoen elkarte eta gobernuz kanpokoko erakunde kopuru altuaren zergatia, bai eta gizarte alorreko gaitako parte-hartze proiektu eta ekimenen indarra eta dinamikotasuna ere. Ikuspegi honetatik, iraganeko elkarren arteko laguntza-sareak landa-eremutik kanpo eman ditu bere fruituak.

Hala izan ohi zen, adibidez, sagardoa egiteko lanei zegokienez. Txalaparta-hotsek auzolanerako deia haizatzen zuten. Egundak euskal musikagintza garaikidean garrantzia handikoa bihurtu den musika-tresnak duela ez hain aspaldi funtzio oso zehatza betetzen zuen sagardoaren lurraldean. Donostia aldeko baserrietan, esaterako, XX. mendearen hasieran auzoak sagarra jotzera deitzen zituzten txalaparta bidez. 1960ko hamarkadan, Ez Dok Amairu taldeko musikari, poeta eta artisten eskutik tresna honek baserri-mundutik abangoardiako kultura-ikuskizunetara egin zuen jauzi. Orduetik, musika-instrumentu honek balio sinboliko handia hartu du, tradizioan errotutako elementu identitario gisa.

7. Joxean Artze eta Aitor Alkorta txalaparta jotzen 2005ean.



7. Joxean Artze et Aitor Alkorta jouant de la txalaparta en 2005.

musique contemporaine basque, avait une fonction très précise sur les terres du cidre, jusqu'à il n'y pas si longtemps. Ainsi, dans les fermes autour de Saint-Sébastien, au début du XX^e siècle, c'est à la *txalaparta* que les voisins étaient convoqués au broyage des pommes. Dans les années 1960, le groupement de musiciens, poètes et artistes Ez Dok Amairu transporta l'outil du monde agricole aux spectacles culturels d'avant-garde. Depuis, l'instrument n'a jamais perdu sa valeur symbolique puissante d'élément identitaire ancré dans la tradition.

Iraganeko gizarte egituraketaren lekukoak

Historiaren joanean, herriak eta hiriguneak sortu eta egonkortu ziren, izan kostaldean ibai arroen ibilguaren abaroan edo lautada eta bailara menditsuetan. XX. mendean nonahi hedatu zen hiritartze-fenomenoa Euskal Herrian ere nagusitu zen, bere egitura eta tradizio propioak sortuz. Esate baterako, herri askotan udaletxeak, elizak eta frontoiak itxi ohi dute bizitza publikoaren erdigunea den plaza. Plaza zein frontoia, herriaren erdigunea eta muina dira: bertan gertatu dira jarduera ekonomiko seinalatuak eta ekitaldi politiko eta sozial nagusiak.

XX. mendearen azken laurdenean, frontoiek eraberritze aro handi bat ezagutu zuten. Frontoi estaliak ugaritu egin ziren, sorreran pilotan jokatzeko kirol-eremua zena erabilera anitzeko espazio bilakaraziz. Umeen jolasleku, herri-kirol probaleku, bazkari herrikoi, azoka, berbena, kantaldi, bertso-saio eta beste hamaika ekimen ospatu izan dira frontoiaren estalpean. Aisialdiaz gain, politikagintzaren adierazpide gune seinalatua ere izan dira, mitin, protesta-ekitaldi eta izaera politikoko bestelako ekimenen plaza nagusi izan diren heinean. Azpimarratzekoa da, diasporako euskaldunen identitate-ikur eta bilgune seinalatu bilakatu direla XIX. mendeaz geroztik: hala, munduan zehar barreiatuak, Euskal Etxeen bueltan, pilotan jokatzeko eraikitako hamaika frontoi topa ditzakegu.

Plaza izan da, hain zuzen, euskal bizitza sozialaren erdigunea, bai eta botere zibilarren eta erlijiosoaren kokagune nagusia. Iraganean baina, hainbat kasutan botere zibilarren egituren erabakiguneak aire librean kokatuak egoten ziren. Horren adibide ezagunena Gernikako Arbola da, XIX. mendean Iparragirreraren kantuak Euskal Herri osorako ikur bilakatu zuena. Haritz haren gerizpean Gaztelako erregeek lehenik eta haien ondotik Espainiakoe, foruen zina egin behar zuten Bizkaiko batzarkideen aurrean. XIX. mendekoa da Gernikako Juntetxea, Erdi Aroaz geroztik Bizkaiko batzarra ospatzen zen haritzaren ondoan eraikia.

Bizkaiko batzarraren moduan, Lapurdiko biltzarra Uztaritzeko harizti batean bildu ohi zen. Zuberoako kasuan, Aro Modernoan herri xehearen ordezkariak osatzen zuen silbieta biltzen zen Libarrenx Irabarne basoan. Politikagintza eta gizarte-antolaketa asanblearioaren lekuko izan dira zuhaitzok historian zehar. Badira hain ezagunak ez izanagatik ere, erabakiak hartu eta tratuak ixteko gune seinalatuak izan diren beste zuhaitz batzuk ere. Horren adibide dira, esaterako, Bizkaian Muxikako Peru eta Marije gaitainondoak. Bi zuhaitz horien itzalpean ixten ziren ezkontzak eta bestelako tratuak, bai eta Gernikako azokan egindako salerosketen ordainketak ere.

Bizkaiko zenbait herritan eliz atariek bete izan dute historikoki erabakigune politikoa izatearen funtzioa. Bertan gauzatzen ziren besteak beste herriaren ordezkariak osatzen zuten etxeko nagusien biltzarrak. Fisikoki elizaren babesean, baina Elizatik bereizita, botere zibila ordezkatzeko baitzuten. Lehenetariko unitate administratibo haiek elizate izenez ezagutzen

Anciens témoins de la structuration de la société

Au fil de l'histoire, les villes et agglomérations émergent et se consolident, sur la côte, le long des fleuves, en plaine et dans les vallées montagneuses. Le phénomène d'urbanisation mondial, généralisé au XX^e siècle, touche également le Pays Basque et crée ses propres structures et traditions. Ainsi, dans de nombreuses communes, l'hôtel de ville, l'église et le fronton délimitent la place du village, qui constitue le centre de la vie publique. La place ou le fronton sont au centre et au cœur de villes et villages : c'est là qu'ont lieu les activités économiques importantes et les principaux événements politiques et sociaux.

Au cours du dernier quart du XX^e siècle, les frontons connaissent une grande période de rénovation. Les frontons couverts se multiplient, transformant ce qui n'était qu'un terrain sportif destiné à la pelote en espace polyvalent. Terrain de jeu pour les enfants, épreuves de force basque, repas populaires, marchés, concerts, bals ou représentation de *bertsos* (poèmes chantés improvisés en basque), toutes sortes d'initiatives trouvent leur place à l'abri des frontons, qui accueillent, en plus des activités de loisir, de nombreux événements politiques, tels que meetings ou actions de protestation. Depuis le XIX^e siècle, les frontons sont même devenus des symboles identitaires et des lieux de rencontre pour les Basques de la diaspora : à travers le monde, autour des Euskal Etxeak (Maisons des Basques), d'innombrables frontons ont été construits pour pratiquer la pelote.

La place constitue à la fois le cœur de la vie sociale basque et le lieu principal où siègent les pouvoirs civils et religieux. Or, par le passé, les lieux de décisions du pouvoir civil étaient souvent situés à l'air libre. L'exemple le plus célèbre est l'Arbre de Gernika, transformé en symbole du Pays Basque au XIX^e siècle par une chanson d'Iparragirre. Sous cet arbre, les rois de Castille puis les rois d'Espagne prêtaient serment aux *fueros* ou fors, les lois consuetudinaires devant les membres de l'Assemblée de Biscaye. La Maison des Assemblées de Gernika, qui date du XIX^e siècle, fut construite à proximité immédiate du chêne sous lequel les assemblées de Biscaye se réunissaient au Moyen Âge.

De même, l'assemblée du Labourd se rencontrait à l'ombre d'une chênaie d'Ustaritz. Quant à la *silbieta* de Soule, qui désigne la représentation du peuple à l'Époque moderne, elle se rassemblait au bois de Libarrenx. Les arbres ont donc été témoins de la vie politique et de l'organisation des assemblées sociales à travers l'histoire. D'autres arbres, moins célèbres, sont toutefois recensés comme lieux de prise de décisions et d'engagement d'accords. Citons par exemple les châtaigniers Peru et Marije de Muxika en Biscaye. Les mariages et autres engagements étaient établis au pied de ces deux arbres, ainsi que les paiements des achats et ventes effectués au marché de Gernika.



dira, eta egungo hainbat udalerriren osaketaren oinarrian daude. Aipagarria da, halaber, herritarrek kudeatutako erabakigune bat izateko joera honi segida emanez, bestelako ekimenen aterpe izan direla eliz atari zenbait. Hala, 1965ean Durangoko Andra Mari eliz atarian ospatu zen lehenengo euskal liburu- eta disko-azoka. Orduz geroztik, hainbestearaino sendotu eta hazi da Durangoko Azoka euskaltzaleon topagune nagusienetakoa bihurtu dela.

8. Gernikako Arbola.

8. Arbre de Gernika (Biscaye).

Dans plusieurs communes de Biscaye, l'emplacement des décisions politiques fut historiquement le porche de l'église. On y célébrait, entre autres, les assemblées des propriétaires fonciers, qui constituaient la représentation du peuple. Physiquement protégés par l'église mais séparés de l'Église institution, ils représentaient ainsi le pouvoir civil. Ces unités administratives, parmi les premières du genre, s'appellent *elizate*, littéralement « porte d'église », et sont à l'origine de la composition de nombre de communes. Suivant cette même tendance, d'autres initiatives ont choisi les porches d'églises pour accueillir leurs événements. Ainsi, en 1965, la première foire basque aux livres et aux disques fut organisée sur le porche de l'église Uribarriko Andra Maria de Durango. Depuis, la Foire de Durango s'est développée et renforcée au point de devenir l'un des lieux de rencontre principaux des défenseurs de la culture basque.

Azokak



9. Foire du livre et du disque basques de Durango (Biscaye).

Mende erdia pasatxo betea duen Durangoko Azokak propio horretarako pentsatu eta eraikitako gune bat du egun, gisa honetako jarduerak eskatzen duten beharretara egokitua. Euskarazko kultura-produkzioaren erakusleho nagusia da, eta azken hamarkadetan literatura- eta musika-produkzioaren agenda markatu du. Bost egunez, milaka bisitari hartzen ditu, eta ehunka dira urterik urte bertan beren lanak aurkezten dituzten idazle eta musikariak. Neurri handi batean, urteko euskarazko kultura-produkzioaren erakusleho eta saltoki ez ezik, Durangoko Azokarako txangoa tradizio bilakatu da dagoe-neko. Izan ere, milaka euskaldunentzat argitaletxe eta diskoetxe handi zein txikien standen arteko itzulia, erosketa-poltsa mardulak eskuetan aspaldiko lagunekin topo egitea eta lagunartean *pote* bat edo mokadu bat partekatzea urtero eraberritzen den zita da. Edozein azokarekin gerta bezala, dimentsio ekonomiko hutsaz harago doa Durangoko Azokaren eragin-esparrua. Giza harremanak ehuntzeko abagunea eskaintzeaz gain, euskaigintza eta kultura-ekoizpena sendotzeko nahiz sartzeko une eta gune garrantzitsua da.

Erdi Aroz geroztik dugu Euskal Herriko toki desberdinetan ospatzen diren merkatuen eta azoken berri. Landa-eremua eta hiriguneak bat egiten duten gune/espazio komertzial gisa definitu ditzakegu, data/denbora jakin batean ospatzen direnak. Baina hori baino askoz gehiago dira. Hainbatek mendez mende iraun dute guganaino, eta egun kontsumo-eredu berrien lekuko eta eragile garrantzitsu bilakatu dira. Tradizioa deitzen dugun horrek

9. Durangoko Azoka.

Marchés

La Foire de Durango existe depuis plus d'un demi-siècle et jouit à l'heure actuelle d'un bâtiment conçu et construit spécialement pour elle, adapté aux besoins de ce type d'événements. Elle constitue la vitrine principale de la production culturelle en langue basque et marque depuis des décennies l'agenda de la production littéraire et musicale. Pendant cinq jours, des milliers de visiteurs se rassemblent pour découvrir les travaux présentés chaque année par des centaines d'écrivains et musiciens. Mais la Foire de Durango n'est plus seulement une vitrine et un lieu de vente de la production culturelle bascophone de l'année. Elle est devenue une véritable expédition traditionnelle. En effet, pour des milliers de Basques, faire le tour des stands des maisons d'édition et de disques, petites ou grandes, retrouver de vieux amis, les bras chargés d'achats et partager un *pot* ou un petit encas entre amis constituent désormais un rendez-vous annuel immanquable. Comme tout marché, la Foire de Durango dépasse la simple dimension économique. En plus d'offrir une occasion de tisser des relations humaines, elle constitue un espace et un moment permettant de renforcer ou de mettre en réseau les défenseurs et amateurs de la culture basque et la production culturelle.

Les premiers témoignages de foires et marchés organisés au Pays Basque datent du Moyen Âge. Ces événements peuvent être définis comme espaces commerciaux dans lesquels le monde rural et la ville s'unissent pour un jour ou un temps donné. En réalité, ils sont bien plus que cela. Certains d'entre eux ont traversé les siècles jusqu'à nous, pour devenir aujourd'hui des témoins et acteurs importants des nouveaux modèles de consommation. Les marchés et foires constituent un exemple intéressant et vivant où ce que nous appelons tradition jouxte des valeurs de la société postmoderne : l'économie durable et la proximité entre lieux de production et acheteurs (principes adoptés par les mouvements qu'on appelle aujourd'hui *Km 0* ou *Slow Food* –restauration lente–) se pratiquent depuis fort longtemps dans les foires et les marchés des villes et villages du Pays Basque.

Historiquement, comme dans nombre de pays d'Europe et du monde, les marchés ont constitué des lieux de développement des villages et des villes. Ils sont souvent situés sur la place centrale, jusqu'à la construction, au XIX^e siècle, de bâtiments spécifiquement destinés. Traditionnellement, les marchés sont des espaces où la vente et le troc se matérialisent, mais aussi des lieux où on tisse des liens entre locaux et visiteurs extérieurs. Ils ont également permis la mise en valeur et le renforcement de nouveaux modes de production et de consommation, en proposant des produits autres que des produits d'alimentation locaux. À une époque, le marché constituait le lieu principal d'approvisionnement en aliments et autres denrées qui ne pouvaient pas être produits localement. Plus tard, des vendeurs ambulants et des boutiques se sont ajoutés à ce paysage commercial.

Certains marchés basques sont très anciens. On trouve ainsi des archives témoignant de l'existence de marchés organisés aux XI^e et au XII^e siè-

gizarte postmodernoaren balioekin bat egiten dueneko adibide interesgarri eta bizia dira azokak: ekonomia jasangarria eta ekoizpen gune eta eroslearen arteko hurbiltasuna (egun Km 0 edo *Slow Food* –janari geldoa– moduko mugimenduek bere egin dutena), aspaldidanik gauzatu izan dira Euskal Herriko herri eta hirietako azoka eta merkatuetan.

Historikoki, Europako eta munduko beste leku askotan bezala, azokak herri eta hirien garapen guneak izan dira. Sarri, herriko plaza izan dute kokagune, harik eta XIX. mendean zeregin horretarako propio eraikinak egin ziren arte. Salerosketa eta trukea gauzatzeko espazioak izan dira tradizioz azokak, auzoen eta kanpokoen arteko harremanak eraikitze lekuak ere bai. Ekoizpen- eta kontsumo-molde berriak ezagutzera eman eta sendotzeko gune garrantzitsuak izan dira, tokian tokiko janariaz gain, bestelako produktuen salmenta ere bertan gauzatzen baita. Garai batean, inguruan ekoizten ez ziren produktuak eskuratzeko toki nagusia izan ohi zen. Beranduago saltzaile-ibiltariak eta dendak agertu ziren merkataritzaren paisaian.

Historia luzea dute zenbait merkatuk. Hala, artxibategietan topa ditzakegu XI-XII. mendeetan jadanik Ordizian, San Bartolome ermitaren inguruan, azoka ospatzen zela aipatzen duten dokumentuak. 1512ko suteaz geroztik, Espainiako Joana I. Gaztelako erreginak «urtean zehar, asteazkenero, merkatu librea, zergarik gabea» egiteko errege-baimena eman zuen eta orduz geroztik udalerriaren erdigunean dagoen plaza nagusian ospatu da asteazkenero. Aguraineko azokaren kasua ere aipagarria da, 1250. urteaz geroztik dokumentatua baitago. Bizkaian 650 urte baino gehiagoko ibilbidea du Gernikan astelehenero ospatzen den azokak. Tolosakoak historia luzea du hiriaren antolaketak berak islatzen duen bezala. Azoka hiru guneetan egiten dute larunbatero: Zerkausian, Berdura plazan eta Euskal Herria plazan.

Urtean zehar, gehientsuenetan astero ospatu ohi diren merkatu edo azokez gain, badira urteko data seinalatuetan arrakasta handiz ospatzen diren azokak. Fenomeno berria da, bereziki XX. mendearen azken aldean sortua. Azoka horiek bertako produktuen ekoizpenaren sustapenari emanak daude, baita tokiko identitatearen goratzeari ere. Hala, bere izaera ekonomikoaz gain, azoka garrantzi handiko instituzioa da giza harremanak gauzatzeko gunea den heinean: lanari eta iraupenari lotua dago, noski, baina baita aisialdiari ere. Are gehiago, azokara joan ondoreneko sozializazioa jarduera ekonomikoa bera bezain garrantzitsua izan da harreman sozialak ehuntzeko eta sendotzeko, baita auzo eta herri desberdinetako bizilagunak elkar ezagutzeko ere.

Iragan mendeetan abelazkuntzak izan duen garrantziaren lekuko dira oraindik ere zenbait herritan ospatzen diren ganadu-feriak. Nekazaritza eta abelazkuntzaren motor eta erakusleho izan dira luzaz. Ganadu-feriek berebiziko lekua izan dute gizarte tradizionala delakoan non lehen sektorea nagusi zen. Zaldi, moxal, behi, txahal, ardi, ahuntz, oilo, oilanda eta kapoi izan dira hamaika feriatako protagonistak. Abenduan Zumarraga eta Urretxuko Santa Lutzi feriaren edo udazken-negu partean Agurain, Tafalla, Altsasu eta Elizondon ospatzen diren ferien ardatza ganadua da. Gaur egun, saltzera eta erostera baino jende gehiago joan ohi da animaliak ikustera, bide batez, bestelako produktuak erostera eta, finean, familian edo lagunartean eguna pasatzera. Ondare immaterialaren adibide dira ferioak, baita beste zenbait ere: Gernikako urriko azken astelehena edo Donostian eta Bilbon ospatzen diren Santo Tomas feriak, besteak beste.

Ganadu-ferien osagarri, zenbaitetan egungo bizi-baldintzak medio haiei gaina hartuta, bestelako produktuen inguruan antolatzen diren azokek indarra hartu dute azken hamarkadatan. Esate baterako, euskal kostaldean

cles à Ordizia (Guipuscoa), autour de l'ermitage de San Barthélemy. Après l'incendie de 1512, la reine Jeanne Ire de Castille donna l'autorisation d'organiser « au cours de l'année, tous les mercredis, un marché libre, exonéré d'impôts », qui se tient depuis, tous les mercredis, sur la place principale du centre de la commune. Citons également le cas d'Agurain (Alava), dont le marché est documenté depuis 1250, ou le marché de Gernika, en Biscaye, qui a lieu tous les lundis depuis plus de 650 ans. Le marché de Tolosa (Guipuscoa), est également très ancien, comme en témoigne l'organisation même de la ville, qui accueille le marché en trois lieux : à Zerkausia, sur la place Berdura et sur la place Euskal Herria.

Parallèlement à ces marchés, le plus souvent hebdomadaires, organisés toute l'année, les marchés ponctuels ne manquent pas de succès. Ce phénomène récent date surtout de la fin du XX^e siècle. Ils sont destinés à la promotion de produits locaux et à la célébration de l'identité locale. Ainsi, le marché, au-delà de sa nature économique, représente une institution de la plus haute importance, dans la mesure où il permet de tisser des relations humaines : il est lié au travail et à l'économie desubsistance, bien sûr, mais aussi au loisir. On peut même considérer que le temps de socialisation qui suit le marché est aussi important que l'activité économique elle-même pour tisser et renforcer les liens et rencontrer les voisins et visiteurs venus d'ailleurs.

Les foires au bétail encore organisées dans certains villages basques témoignent de l'importance passée de l'élevage. Elles ont longtemps été moteurs et vitrines de l'agriculture et de l'élevage. Les foires au bétail ont revêtu une importance capitale dans la société dite traditionnelle, où le secteur primaire était prédominant. Ainsi, chevaux, poulains, vaches, veaux,

10. Foire au bétail d'Agurain (Alava).

10. Aguraingo ganadu-feria.





uda partean antolatzen diren arrantzaren inguruko azoka edo egun bereziak: antxoaren eta berdelaren eguna edota nazioartean azken urte hauetan izen handia hartu duen Ezpeletako piperraren azoka, Lapurdin. Azoka horietako batzuk mendez mende mantendu dira eta motor ekonomiko garrantzitsua izaten jarraitzen dute. Halaber, ohiko salerosketa-jarduerari, duela bi hamarkadatik hazten ari den turismoaren eragina batu zaio. Tradizioaren diskurtsoa kontsumo-praktikekin uztartuta ageri zaigu halakoetan.

11. Ezpeletako piperraren azoka.

brebis, chèvres, poules, poulardes et chapons se disputent le premier rôle de la foire Santa Lutzi, à Zumarraga et Urretxu (Guipuscoa), en décembre, ou à Agurain (Alava), Tafalla, Altsasu et Elizondo (Navarre) entre l'automne et l'hiver. Aujourd'hui, les visiteurs ne se rendent plus tellement à ces foires pour acheter des animaux, mais plutôt pour les voir, acheter au passage d'autres produits et passer la journée en famille ou entre amis. Toutes ces célébrations, ainsi que la foire appelée *Urriko azken astelehena* (dernier lundi d'octobre) à Gernika ou les foires Santo Tomas à Saint-Sébastien ou à Bilbao, font partie de notre patrimoine immatériel.

Parallèlement à ces foires au bétail, le mode de vie moderne ayant parfois pris le dessus sur l'ancien, des marchés organisés autour de la pêche ou d'autres types de produits se sont renforcés ces derniers temps, notamment durant la période estivale : la journée de l'anchois ou du maquereau, ou la désormais internationalement célèbre Fête du Piment, à Ezpeleta, au Labourd. Certains de ces marchés ont été maintenus à travers les siècles et continuent de constituer un moteur économique important. De même, aux activités habituelles d'achat et de vente s'est ajoutée, depuis deux décennies, l'influence du tourisme croissant. Le discours de la tradition apparaît alors mêlé à des pratiques de consommation.

Lanak eta festak bat egiten dutenean: herri-kirolak

Uda partean euskal kostaldeko herriak kolorez betetzen dira, asteburuetan estropadetan parte hartzen duten traineruetako eskifaiak animatzeko. Tradizio handiko kirol-erakustaldia ematen dute uretan arraunean jo eta su dabiltzan arraunlariek, gizon eta emakumeek. Egun, kirol gisa ikusi eta bizitzen den kirol-jarduera honek Euskal Herriko historiaren garai garrantzitsu batean du jatorria; bale-arrantzan, hain zuzen. Euskal kostaldeko baleak desagertzearaino arrantzatu zituzten eta bale bila urrunago jo zuten euskal arrantzaleek. XVI. mendeaz geroztik, euskaldunak Atlantikoko itsaso hotzetan bale-arrantzan zebiltzanaren arrastoak ditugu artxibategietan gordetako dokumentuetan eta Kanadan topatutako aztarnategi arkeologikoetan. Horien artean ezagunena, ezbairik gabe, San Juan Baleontzia dugu, Unescok urazpiko kultura-ondarearen ikur izendatua: 1565ean, Red Bay-n, Ternua parean, hondoratu zen euskal baleontzia. Pasaian, Albaola elkarteak kideak erreplika eraikitzen ari dira orduko ontzigintza teknikak baliatuz. Bale-arrantzan erabilitako txalupen ondorengoa omen dugu estropadetan erabiltzen den trainerua, baxurako arrantzan XIX. eta XX. mende hasierara arte antxoa eta bestelako arrainak harrapatzeko erabili izan dena.

12. Kontxako Bandera, Hibaika trainerua. Donostia, 2017.



12

Quand le travail rencontre la fête : force basque

À l'approche de l'été, les villages de la côte basque s'habillent de mille couleurs pour encourager les équipages des traînieres qui participent aux régates. Les rameurs et rameuses tirant énergiquement sur leur rame offrent sur l'eau un spectacle sportif de grande tradition. Cette activité sportive, aujourd'hui considérée et vécue comme un sport, trouve son origine dans une pratique historique très importante du Pays Basque : la chasse à la baleine. Les baleines de la côte basque ayant été chassées jusqu'à l'extinction, les pêcheurs basques furent contraints de s'éloigner. On trouve des témoignages de la pratique de la chasse à la baleine par les Basques dans les mers froides de l'Atlantique à partir du XVI^e siècle, dans des archives documentaires et dans des sites archéologiques découverts au Canada. Le plus célèbre d'entre eux est sans conteste le baleinier basque San Juan, qui sombra en 1565 à Red Bay, au large de Terre-Neuve. Les membres de l'association Albaola de Pasaia (Guipuscoa) construisent actuellement une réplique de ce bateau, retenu par l'Unesco comme symbole du patrimoine maritime subaquatique mondial suivant scrupuleusement les techniques de construction navale de l'époque. Les traînieres qui se disputent aujourd'hui les trophées des régates seraient des descendantes des chaloupes de chasse au cétacé, utilisées en pêche côtière au XIX^e et XX^e siècles, notamment pour pêcher l'anchois.

La dernière baleine franche capturée dans le Golfe de Biscaye fut pêchée en 1901 à Orio (Guipuscoa). Si le maniement du harpon était abandonné depuis longtemps, des *bertsos* font le récit d'une baleine chassée à bord de traînieres. D'autres chants racontant des chasses plus anciennes révèlent la rude concurrence qui secouait les villes rivales. Les régates de traînieres que nous connaissons aujourd'hui sont nées de ces compétitions anciennes. En revanche, les courses sont désormais très précisément réglementées : zone de rame, modalités de classement, composition de l'équipage et caractéristiques du bateau répondent à des règles très précises. Jusqu'en 1990, les traînieres de course étaient fabriquées en bois, jusqu'à être remplacées par des embarcations en fibre de carbone. Ces dernières, en plus d'être nettement plus légères, présentent l'avantage de durer plus de trois ans.

Comme les régates de traînieres, d'autres sports basques devenus célèbres, que l'on connaît aujourd'hui sous le nom de « force basque », comme les épreuves de hache, de coupe à la faux ou de *txinga* (portage de poids), trouvent leur origine dans le monde du travail de la société traditionnelle. L'épreuve des mineurs, qui percent la pierre à l'aide d'une tige de fer à la seule force des bras, est également considérée comme épreuve de force basque et provient du contexte d'industrialisation et de l'exploitation des mines de fer de la Biscaye. Les courses de montagne et la pelote basque, qui ont aujourd'hui dépassé le monde rural, font figure d'exception. Les épreuves de force basque, considérées par certains comme simples vitrines

12. Course de la Concha, traînière Hibaika. Saint-Sébastien (Guipuscoa), 2017.

1901ean Orion arrantzatu zuten Bizkaiko Golkoan harrapatutako azken sardako balea. Arpoiaren maneiua aspaldi galdua bazuten ere, traineruen laguntzaz harrapatu zuteneko kontakizuna iritsi zaigu pasarteak jasotzen duen bertso sortaren bidez. Aurreko mendeetan gertatutako beste zenbait bale-ehizen berri ematen duten bertsoek erakusten dute herrien artean zer-nolako lehia bizia pizten zen. Norgehiagoka haien ondotik agertu ziren egun ezagutzen ditugun estropadak. Goitik behera araututako kirola dira gaur egun: arraun-eremua, sailkatzeko modua, eskifaiaren osaketa eta ontziaren ezaugarriak zehatz-mehatz finkatuak dituenak. 1990. urtera arte estropadetako traineruak zurezkoak ziren, harik eta karbono-zuntzezko ontziek haien lekua hartu zuten arte; arintasunaz gain, zurezkoek ez bezala, hiru urte baino gehiagoko bizitza dute.

Estropadekin gertatu moduan, famatu diren gainerako herri-kirolak gizarte tradizionaleko lan-munduan dute jatorria: hala gertatzen da aizkora, sega, txinga eta abarrekin. Industrializazio testuinguruarekin eta Bizkaia aldeko burdin-meategien ustiapenarekin lotzen diren harri-zulatzailak ere herri-kirol gisa kontsideratzen dira. Salbuespena mendi-lasterketa eta pilota dira, eta biak ala biak lortu dute landa-eremutik haragoko sona. Hainbatentzat euskal kulturaren erakusleho folkloriko hutsa dena turisten gozagarria da. XIX. mendean, egun ezagutzen ditugun forman sortutako herri-kirolek pisu eta indar desberdina zuten. Guztietan, indar-erakustaldi baten inguruan gorpuzten da jarduera, eta bestelako kirol-jardueratan gertatzen den moduan iraupena, erresistentzia, trebezia eta ahalmen-fisiko eta -mentala funtsezkoak dira lehia irabazteko.

Herri-kirol zenbaitek ikaragarritzko antolaketa eta dinamika sortzea lortu dute, goi-mailako kirol-lehiaketa izateraino. Pilota dugu adibide gorenak: Joko Olinpiko modernoak antolatu zirenetik pilotaren modalitate desberdinak presente egon dira. Hala izan zen 1900 eta 1924ean Parisen ospatutako Joko Olinpikoetan, bai eta Mexikon 1968koetan ere; 1992ko Bartzelonako Jokoetan, aldiz, kirol erakusgarri izan zen. Badira herri-kirol federazioak eta horietako batzuk nazioarteko egituretako parte dira duela bi hamarkada; zenbait herri-kirolek profesionalizazio bidea hartu dute. Badira, halaber, testuinguru profesionalaz gain sozializazio- eta festa-giroan ohikoak direnak, haurtzaroko hamaika festa eta eskola-ospakizunetako egitarauetan topa ditzakegun sokatira, zaku-lasterketa edo lokotx-biltzeak, esaterako.

13. Albaola, itsas ondarea berreskuratzen eta ezagutza transmititzen.



13. Albaola, en récupérant le patrimoine maritime et en transmettant la connaissance.

folkloriques de la culture basque, ravissent généralement les touristes. Au XIX^e siècle, les épreuves de force basque sous la forme que nous connaissons jouissaient d'un poids et d'un écho différents. Ils ont pour dénominateur commun d'être fondés sur une démonstration de force et demandent, comme toute activité sportive, endurance, résistance, habileté et aptitudes physiques et mentales.

Certaines activités sportives basques sont parvenues à déclencher une organisation et une dynamique considérable, au point d'atteindre les rangs des sports de haut niveau. La pelote basque, présente à plusieurs reprises aux Jeux Olympiques modernes, en est l'exemple le plus significatif. Elle fut représentée aux Jeux Olympiques de 1900 et de 1924 à Paris, ainsi qu'au Mexique en 1968. Aux Jeux Olympiques de Barcelone de 1992, elle prit la forme d'une représentation sportive. Il existe aujourd'hui des fédérations de sports basques, dont certaines font partie de structures internationales depuis deux décennies. Certains de ces sports sont en voie de professionnalisation. D'autres encore sont plus habituels en situation de socialisation et de festivités, tels que le tir à la corde, les courses de sacs ou le ramassage d'épis, très courants parmi les enfants lors de fêtes scolaires notamment.

Ingurunea dema-zelai

Egungo gizarte postindustrialan ingurunearekiko lotura eta naturarekiko konexioa duela ehun eta berrogeita hamar urte zegoenarekin alderatuta oso bestelakoa da. Haatik, nagusiki lan-eremu izatetik, herritar askorentzat orain aisialdi gunea da, bai eta neurri batean tradizioen eraberritze-eremua ere. Europa Mendebaldean XVIII-XIX. mendeetako joera naturalistaren barruan errota zen mendizaletasuna zeina, Pirinioetan ez ezik, Euskal Herri osoan XX. mendean zabaldu zen. Ordutik, zientoka mendi-talde daude gurean. XX. mendean, Francoren diktadura garaian bereziki, mendia sozializazio gune garrantzitsua izan zen; mendi-irteerek eta mendi-taldeek harremanak sartzeko funtzioa bete zuten abertzaletasunaren baitan.

Hala, zenbait eskualdetan, mendiarekin zerikusia duten tradizioak berritzen dira urtez urte. Ezagunenak artean daude XX. mende hasieraz geroztik Urtats Eguneako mendi-igoerak; Adarrara edo Pagasarri, esaterako. Zaharragoak dira erronka abiapuntu duten mendi-zeharkaldien aipamenak. Kontrastean, eta azken hauei estuki lotuta, duela hiru bat hamarkadatik eraberrituak datozkigu mendi-lasterketak.

Herri-kirol gisa sailkatu dute hainbat adituk mendi-lasterketa. XIX-XX. mendeetan sona handia izan zuten banakoek elkarren kontra jokatzeko zituzten lasterketek, ibilbide librean. Dokumentatuta dauden XIX. mendeko lasterketa horiek joko-eskemaren arabera antolatuta zeuden eta bi aurkariren arteko lehia gorpuzten zuten. Norbanakoek lasterka egiten bazuten ere, sarritan herri batek beste bat, maiz auzoko herria, aurkari hartzen zuen. Denboraren joanean, bertakoen memorian errota eta egonkortu egin dira. Esate baterako, Zuberoako Basabürüko Barkoxen behiala artzainen lasterketa zena, egun kirol-froga entzutetsua bilakatu da; hain zuzen, Ahargo lasterka edo *Trail des bergers*. Gisa berean, Artzainen lasterketa topa dezakegu Baigorri eta bada ere historia luzea duen kontrabandisten krosa ere, urtero, Saran, mugakide diren herrien artean lehiatzen dena. Adibide hauek erakusten duten moduan mendi-lasterketek ibilbide luzea dute Euskal Herrian.

Aurreko mendearen azken laurdenean aire libreko muturreko kirol-frogak nazioartean indartu ziren eta azken urteetan gurean ere mendi-lasterketak hedatu egin dira. Orografiak eskaintzen duen erliebea dela-eta, Euskal Herria goi-mailako lehiaketa-eremu bilakatu da. Trail, kilometro bertikalak eta erresistentzia frogak ikaragarri ugartu dira mende berriarekin batera. Horien artean ezagunena, ezbairik gabe, Zegama-Aizkorri mendi maratokia da. Skyrunner World Series munduan ospetsua egin den mendi maratoi sortan puntuagarri izateko lasterketa izan da 2018. urtera arte. Geroztik, Golden Trail Series-eko parte da, hau da, mundu osoko bikaintasun maila goreneko bost mendi lasterketa biltzen dituen sortakoa. Mont Blanc, Sierre-Zinal, Pikes Peak eta Ring of Steall lasterketekin batera kokatzen da Zegama-Aizkorri; bost froga horietan munduko mendi-lasterkari onenek parte hartzen dute. Finean, garai bateko desafio-lasterketen tradizioa gaurkotuta eta nazioarteko proiektioarekin eraberrituta dator.

14. Eli Anne Dvergdsal.
Zegama-Aizkorri Mendi
Maratokia. Zegama, 2019.

L'environnement comme terrain de jeu



14

14. Eli Anne Dvergdsal.
Marathon de montagne
Zegama-Aizkorri.
Zegama (Guipuscoa),
2019.

La relation de la société postindustrielle actuelle avec l'environnement et la nature est très différente de celle d'il y a cent cinquante ans. La nature, qui était un lieu de travail, est devenue pour beaucoup un espace de loisir et, dans une certaine mesure, de renouvellement des traditions. Au XX^e siècle, la pratique de la randonnée, ancrée dans le courant naturaliste des XVIII^e et XIX^e siècles en Europe occidentale, s'est enracinée et développée dans les Pyrénées, mais aussi dans l'ensemble du Pays Basque. Depuis, on ne compte plus les clubs de randonnées dans notre pays. Au XX^e siècle, notamment pendant la dictature de Franco, la montagne devint un lieu de socialisation important : les balades en montagne et les clubs de randonnée avaient une fonction de mise en réseau au sein des *abertzales*.

Ainsi, dans certaines régions, les traditions montagnardes se renouvellent chaque année. Les plus connues sont les ascensions du jour de l'an, à Adarra (Guipuscoa), Pagasarri (Biscaye) ou autres, organisées depuis le début du XX^e siècle. Les témoignages de traversées de montagnes basées sur des défis sont plus anciens. À l'inverse, et étroitement liées à ces dernières, on trouve les trails ou courses de montagne, très populaires depuis trois décennies.

Plusieurs experts classent le trail parmi les sports populaires basques. Aux XIX^e et XX^e siècles les courses individuelles à parcours libres ont acquis une renommée importante. Les courses du XIX^e siècle documentées étaient

Bi urtean behin ospatzen da AEKren (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) eskutik Euskal Herria alderik alde zeharkatzen duen Korrika. Milaka korrikalarik betetzen dituzte kale eta errepideak, eskuz esku txandakatzen doan lekukoaren atzetik. Euskararen alde egiten den mobilizaziorik zabalena, indartsuena eta irudimentsuena da, ezbairik gabe. Hemen ere erronka dago ekintzaren erdigunean. Aitzitik, erronka hori lasterkarien arteko norgehiagokaz harago doa Korrikaren kasuan. Jokoan dagoena da hizkuntzarekiko atxikimendua, lurralde-batasuna, hiztun-komunitatearen agerraldia eta trinkotzea. Hori guztia gizartearen inplikazio zabal eta anitzaren eskutik egiten da, hamar egunez eta gauez gelditu gabe, festa-giro alaian korrika egiteari utzi gabe.

15. Korrika 21. Gasteiz, 2019.



organisées selon un schéma d'affrontement entre deux concurrents. Si les courses étaient individuelles, c'était en réalité deux villages, souvent voisins, qui s'affrontaient. Au fil du temps, cette pratique s'est ancrée et renforcée dans la mémoire des locaux. Ainsi, l'ancienne course de bergers de Bar-koxe (Barcus), à Basseboure, en Soule, est devenue une célèbre épreuve sportive, appelée aujourd'hui Trail de Barcus. On trouve une autre course de bergers à Baigorri (Basse Navarre) et le cross des contrebandiers, organisé chaque année à Sara et qui oppose les villages frontaliers et compte d'ores et déjà d'une longue trajectoire. L'histoire des trails est donc longue au Pays Basque.

Le dernier quart du XX^e siècle a vu un développement des sports extrêmes à l'air libre à travers le monde. Dans cette lignée, les courses en montagne se sont multipliées ces dernières années au Pays basque. Le relief de la région la place parmi les terrains de compétition de haut niveau. Trail, kilomètre vertical et épreuves d'endurance se sont énormément développés à l'orée du XXI^e siècle. Le plus célèbre d'entre eux est sans conteste le marathon de montagne Zegama-Aizkorri en Guipuscoa. Cette course a compté jusqu'en 2018 parmi les courses de la série mondialement connue Skyrunner World Series. Depuis, elle fait partie de la série Golden Trail Series, un groupement de cinq trails du plus haut niveau d'excellence mondial, aux côtés des courses du Mont Blanc, de Sierre-Zinal, du Pikes Peak et du Ring of Steall, et auxquelles concourent les meilleurs trail runners au monde. En somme, la tradition des défis de course de montagne s'est actualisée et se trouve projetée au niveau international.

Enfin, dans un tout autre genre, la course Korrika, qui traverse le Pays Basque au profit d'AEK (Coordination d'Alphabétisation et de Bascophonisation) a lieu tous les deux ans. Les rues et les routes du pays sont traversées par des milliers de coureurs trotant derrière un témoin qui passe de main en main. Il s'agit sans conteste de la mobilisation la plus vaste, la plus puissante et la plus imaginative inventée en faveur de la langue basque. Une fois de plus, le défi est au centre de l'action. En revanche, Korrika dépasse largement la compétition individuelle entre coureurs, puisque c'est l'attachement à la langue, l'union territoriale et l'exhibition et le renforcement de la communauté de locuteurs qui est en jeu. Tout cela se produit grâce à une participation sociale vaste et hétéroclite autour d'une course ininterrompue de dix jours et dix nuits, dans une ambiance joyeuse et festive.

15. Korrika 21. Vitoria-Gasteiz (Alava), 2019.

Sozializazio-esparru askotarikoak: kuadrillak, elkarteak, lagunarte-sareak

Euskal Herrira datozen bisitariek harriduraz erreparatzen diote soziabilitateak eta gizarte harremanek oro har espazio publikoan duten presentziari. Bertako jendeak kalea du maite. Etxetik kanpo gertatu ohi dira familia-unitatetik aparteko gainerako harreman gehientsuenak. Euskal Herriko kale eta plaza biltzen da jendea, neguan eta udan, antzinako zein duela hiruzpalau hamarkada sortutako tradizioak gorpuzteko, eraberritzeko edo arbuizatzeko.

Lana edo eskola garaiaz gain, lagunartea da sozializazio gune nagusia. Euskal gizartean egitura berezkoak eratu dira, kuadrilla izenez ezagutzen direnak. Adiskidetasunean oinarritutako sozializazio-egitura da kuadrilla. Beste herrialde batzuetako egiturekin alderatuz itxuraz informala da, baina funtzionamendu eta arau inplizituak ditu. Sarri, adinkideak biltzen dituen lagun-taldea da, nahiz eta gerta daitekeen bestelako irizpideren baten inguruan eratzea. Kuadrillaren helburua aisialdiaz elkarrekin gozatzea da, baina babes-egitura bezala funtzionatzen du, eta nerabezaro eta gaztaroan bereziki ohikoa da kuadrilla bidezko sozializazioa. Askotan gaztaroan eratu eta bizi osorako iraun ohi du, baina jarduerak eta kideek elkarrekin ematen duten denbora nabarmen alda daiteke bizitzaren zikloetan zehar. Iraganean ez bezala, egun neskak zein mutilak bildu daitezke kuadrillatan, batzuetan oraindik ere generoaren arabera banatuta badaude ere. Kuadrilla edukitzea gauza arrunta eta orokortua dela irudikatzen da egun; kuadrillarik ez izateak, aldiz, kutsu negatiboa eduki dezake. Gaztaroaz harago mantentzen den adinkideen arteko sozializazio modu hau kanpotik datozen bisitari askorentzat bitxia suerta daiteke. Kuadrillaz kanpoko lagunak eta adiskideak izatea ohikoa bada ere, kuadrillak denbora eta dedikazioa eskatzen du, baina baita aisialdirako plan eta lagunarte finko bat eskaini ere, tartean kuadrilla-afari, asteburu pasa eta antzerakoak.

Euskal Herrian senideez haragoko jende multzoa biltzen duten festa eta ospakizun nagusiak espazio publikoan gauzatzen dira. Bereiz-lerro nabarmena dago etxe barruko ospakizun eta gainerakoen artean. Lagunarterako ere, etxetik kanpoko guneak izan ohi dira biltzeko eta harramantzako tokiak. Kalea, etxetik kanpoko gune urbanizatua, giza harremanak ehundu eta indartzeko gune esanguratsua da. Izatez pribatuak diren baina erabilera publikoa duten zenbait gune gehitu behar zaizkio kaleari: tabernak, jatetxeak eta mota guztietako elkarteak, bereziki, elkarte gastronomikoak. Azken hauek gizarte zientzietan aditu direnen arreta piztu dute, Euskal Herriko gizarte-egitura berezko bilakatu baitira azken hamarkadetan. Bertan gorpuztu eta mamitu dira azken mende eta erdian sortuak izanagatik ere, gaur egun inork auzitan jartzen ez dituen hamaika tradizio berri.

Mila bostehunetik gora elkarte gastronomiko daude egun Euskal Herrian eta Hegoaldean 30.000 bazkidetik gora biltzen dituzte orotara. 1870ean

Des cadres de socialisation variés : 'kuadrillas', sociétés, réseaux d'amis

Les étrangers qui visitent le Pays Basque sont souvent étonnés par la forte présence de la sociabilité et des relations sociales en général dans l'espace public. Les Basques aiment être dans les rues. La plupart des relations hors unité familiale s'organisent en dehors des maisons. On se retrouve dans la rue et sur les places, été comme hiver, incarnant, renouvelant ou rejetant les traditions très anciennes ou vieilles de quelques décennies.

En dehors du travail et de l'école, l'espace de socialisation principal est constitué par les relations entre amis. La société basque a façonné ses propres structures, qu'on appelle *kuadrilla*, ces petits groupes de socialisation fondés sur l'amitié. Si elle semble informelle au regard de structures existant dans d'autres pays, la *kuadrilla* répond à un fonctionnement et à des règles implicites. Elle rassemble le plus souvent des amis de la même année de naissance, bien qu'elle puisse, à l'occasion, être organisée autour d'autres critères. L'objet de la *kuadrilla* est de profiter ensemble du temps de loisir, mais elle joue aussi un rôle protecteur. La socialisation tourne souvent autour de la *kuadrilla*, notamment pendant l'adolescence et la jeunesse, où elle prend généralement forme, pour durer toute la vie, même si les activités et le temps passé entre ses membres peut largement évoluer selon les cycles de vie. Les *kuadrillas*, autrefois systématiquement organisées par genre, peuvent aujourd'hui être mixtes, bien que cette caractéristique ne soit pas totalement généralisée. Tout comme le fait d'être membre d'une *kuadrilla* est aujourd'hui considéré comme normal et généralisé, n'appartenir à aucune *kuadrilla* peut avoir une connotation péjorative. Ce mode de socialisation entre personnes du même âge, maintenu à l'âge adulte, peut s'avérer étrange pour de nombreux visiteurs. S'il est courant d'avoir des amis et camarades hors de la *kuadrilla*, cette dernière demande du temps et de l'implication, mais offre en revanche un cadre convivial permanent où loisir et amitié vont de la main, autour de repas, de week-ends et de toute sorte d'événements.

Au Pays Basque, les fêtes et célébrations principales réunissant des personnes extérieures au cercle familial ont lieu dans l'espace public. Une frontière très nette sépare les festivités dans les maisons et les autres. Même entre amis, on se réunit rarement chez soi. La rue, l'espace extérieur urbanisé, constitue un lieu significatif de tissage et de renforcement des relations humaines. À la rue s'ajoutent les lieux privés à usage public : bars, restaurants et toute sorte d'associations, notamment les sociétés gastronomiques. Ces dernières éveillent la curiosité des experts en sciences sociales, car elles sont devenues ces dernières décennies une structure sociale propre au Pays Basque. C'est là que sont nées maintes nouvelles traditions que, bien qu'apparues il y a un siècle et demi seulement, personne ne remettrait aujourd'hui en question.



16

eratu zen gisa honetako lehen elkarte Donostiako Alde Zaharrean, Union Artesana delakoa. Hiriaren testuinguruan sortutako fenomeno modernoan izanik ere, hasieratik oihartzun ikaragarria izan zuen eta hamarkada gutxi-
ren buruan elkarteak Hego Euskal Herri osora zabandu ziren. Egun, herririk txikienak bere elkarteak du eta, tabernarik ezean, sozializazio gune nabarmena bilakatu da. Herri koxkor eta hirietako auzoetan dauden elkarteak kontaezinak dira, izaera eta helburu aldetik askotarikoak dira. Hala, badira kirol-jarduera jakin bat ardatz duten elkarteak edo lanbide jakin bati lotutakoak. Gehientsuenek, hala ere, kultura-elkarte edo elkarte gastronomiko gisara definitzen dute beren burua.

Taberna eta sagardotegien ordutegien mugak zirela-eta agertu ziren Donostian lehen elkarteak XIX. mendean. Jakiak prestatzeko beharrezkoak diren baxera, tresna eta ekipamendua dituen sukalde eta ardo, sagardo edota bestelako alkoholodun edari zein freskagarri ongi hornitutako ardandegia dira edozein elkarteren funtsa. Otorduak lagunartean disfrutatu ahal izateko espazio bat, mahai luze eta behar adinako banku edo aulki sendoak dituzte. Bazkideek bertan prestatu eta kozinatzen dituzte lagunartean dastatzeko otorduak, aurretiaz berauek erositako jaki freskoekin. Kozinatu eta zerbitzatu, mahaiak jaso eta kontuak egin, guztia bazkideen esku gelditzen da. Zenbait kasutan garbiketa egitea ere bai, nahiz eta elkarte gehientsuenetan soldatapeko garbitzaile bat egon ohi den. Elkarrenganako konfiantza du oinarri elkarteak. Otorduren ondoren, bazkideek kontua egin eta guztien artean ordaintzen dute. Bertako antolaketaz arduratzen den batzordea asanblada bidez hautatutako bazkideek osatzen dute. Bazkideak bazkide ez diren lagunak gonbidatu ditzake elkartera eta beren portaeraren arduradun izango da. Bazkaltiarak mahai luzeen bueltan eserita, lagunarteko giro umoretsu eta sarritan zaratatsua egon ohi da elkarteetan.

16. Txotx sagardotegian.

16. Txotx dans une cidrerie basque.

Le Pays basque compte plus de mille cinq cents sociétés gastronomiques, qui rassemblent, au Pays basque Sud, plus de 30 000 membres. La première association du genre, Union Artesana, naît en 1870 au centre historique de Saint-Sébastien. Malgré la nouveauté du phénomène qui émerge dans ce contexte urbain, il trouve immédiatement un écho retentissant et des associations de ce genre se multiplient à travers le Pays Basque Sud en quelques décennies. Aujourd'hui, le plus petit village compte sa société, devenue, à défaut de bar, l'espace de socialisation central. Dans les plus grands villages et les quartiers des grandes villes, les sociétés sont innombrables et diverses. Elles peuvent être organisées autour d'une activité sportive ou d'une profession, bien que la plupart se définissent comme associations culturelles ou gastronomiques.

Les premières sociétés sont apparues au XIX^e siècle à Saint-Sébastien, pour contourner les limitations horaires imposées aux bars et aux cidreries. Toute société digne de ce nom possède le matériel, la vaisselle et l'équipement nécessaire à la préparation de repas, ainsi qu'une cave bien garnie de vin, de cidre et d'autres boissons alcoolisées ou rafraîchissements. Elles offrent un espace permettant de partager des repas entre amis, une grande table et autant de solides bancs que nécessaire. Les membres y cuisinent des repas qu'ils partageront, avec des aliments frais qu'ils ont achetés eux-mêmes au préalable. Cuisine, service, débarrassage et comptabilité, tout est à la charge des membres. Dans certains cas, ils se chargent également du ménage, mais la plupart du temps, ils préfèrent employer un homme ou une femme de ménage. La société est basée sur la confiance mutuelle. À la fin du repas, les membres font les comptes et partagent les frais. La commission chargée de l'organisation est composée de membres élus en assemblée. Chaque membre peut inviter des personnes extérieures à la société. Il sera alors responsable de leur comportement. Assis autour d'une grande table, les convives partagent des moments de camaraderie joyeux et souvent bruyants.

Les sociétés sont des éléments fondamentaux et moteurs d'innombrables dynamiques culturelles dans différents villages et quartiers, notamment parce qu'elles ont permis aux Basques, au XX^e siècle, de se rassembler sous la dictature. Nombre d'initiatives, de projets et de propositions ont pris corps autour d'une table de société gastronomique, et des centaines de réseaux d'opérateurs ont vu le jour à l'ombre d'une société. Aujourd'hui, les locaux et caves loués par les jeunes *kuadrillas* jouent ce même rôle rassembleur.

En centre-ville ou dans les quartiers, les associations gastronomiques se trouvent le plus souvent dans des caves d'immeubles. Contrairement aux restaurants, leurs sociétés leur permettent de jouer les prolongations après les repas. Ces dernières années, ces espaces accueillent non seulement des repas entre amis, mais aussi des réunions familiales, déjeuners ou goûters d'anniversaires et, de plus en plus souvent, compte tenu de la taille des appartements actuels, toute grande célébration familiale, comme les repas de Noël. La société présente plusieurs avantages : une cuisine professionnelle bien équipée, un espace plus vaste que dans la plupart des maisons et la tranquillité qu'apporte la certitude de ne pas déranger les voisins.

Au départ, les sociétés étaient composées uniquement d'hommes, les femmes n'étant autorisées à participer qu'en tant qu'invitées. Dans certaines sociétés, l'accès des femmes était très limité : elles ne pouvaient participer qu'à certaines occasions bien précises, et en aucun cas la nuit. Ce fonctionnement, qui rend compte du manque de correspondance entre le

Herri eta auzoetako hamaika kultura-dinamika eta gizarte-ekimenen abiapuntu eta funtsezko elementu dira elkarteak, batik bat, XX. mendean zehar, diktadurapean, jendea biltzeko abagunea eskaintzen zuten egiturak izan zirelako. Hala, hamaika ekimen, proiektu eta proposamen gorpuztu dira elkarte batean ospatutako bazkari eta afarien bueltan, bai eta ehunka ekintzaile-sare sortu ere elkarte baten abaroan. Egun, gazteentzat elkarteetan antzerako aisialdi-bilgune funtzioa betetzen dute kuadrillek alokatutako sotoek.

Hirigune zein auzoetan, gehientsuenetan etxebizitzaren behealde eta sotoetan egon ohi dira. Jatetxeetan ez bezala, bazkaloste luzeak egiteko aukera eskaintzen dute elkarteek. Azken urte hauetan, lagunarteko otordu eta bestelako bazkari eta afariez gain, familiako ospakizunak egiteko gune bihurtu dira; urtemuga bazkari edo askari eta, gero eta sarriago, egungo etxeen tamaina ikusita, familia-ospakizun handi izan ohi diren bestelakoetarako; Gabonetako afari-bazkariak kasu. Elkarteak hainbat abantaila eskaintzen ditu: sukalde profesional bat (behar bezala hornitua), etxe barru gehienetan baino espazio zabalagoa eta bizilagunei trabarik ez egiteak dakarren lasaitasuna.

Sorreran, soilik gizonezkoek osatzen zituzten egiturak ziren elkarteak. Gizonezkoek baino ez zuten bazkide izateko eskubidea, eta emakumeak bazkaltiar moduan baino ez ziren onartuak. Zenbait elkartetan emakumeek sarbidea guztiz mugatua zuten: data seinalatu jakin batzuetan besterik ez, eta inolaz ere gauez. Berdintasun-printzipioa parekidetasunarekin bat ez datorrela azaleratzen duen funtzionamendu honek luzaroan, Euskal Herrian ere, etxe kanpoko aisialdirako aukera gizonezkoen esku egon dela gogorazten du. Erresistentziak egonagatik ere, XX. mendearen amaiera aldean sortutako elkarte berri gehientsuenek parekidetasuna funtzionamendurako printzipio gisa ezarri zuten eta gizonei eta emakumeei bazkide izateko eskubidea aitortu zitzaien. Honela, mugimendu feministak herrietan zein maila instituzionalean parekidetasunaren alde egindako borrokak izan du islarik elkarteetan bilakaeran. Aldaketa nabarmenak gertatu dira eta oraindik ere salbuespenak dauden arren, emakumeei zabalduz joan zaie bazkidetza.

principe d'égalité et la parité, confirme qu'au Pays Basque comme dans bien d'autres cultures, le loisir en dehors du foyer a longtemps été réservé aux hommes. Malgré certaines réticences, la plupart des nouvelles sociétés créées vers la fin du XX^e siècle ont inscrit la parité comme principe de fonctionnement et ont accordé aux femmes comme aux hommes le droit d'être membres à part entière. Ainsi, la lutte pour la parité exercée par le mouvement féministe auprès de la société et des institutions s'est aussi traduite par l'évolution des sociétés gastronomiques. Les sociétés se sont profondément transformées et, malgré quelques exceptions, les femmes peuvent aujourd'hui en être membres au même titre que les hommes.

Festa-egutegi zabal eta oparoa



Festa-errepertorio bereziki aberatsa du Euskal Herriak. Urte osoan barreiatuturiko ospakizun-zerrenda luzeak osatzen du festa-egutegi bizi eta oparoa. Historikoki, festak elizako ospakizun bati edo herri bati lotuak egin dira gehientsuenetan eta, neurri batean, lurralde-izaera jakin bat marrazten eta azaleratzen lagundu dute. Iraganean festa kasik guztiek izaera erlijiosoa zuten. Festek, beren erara, behar komunitario bat adierazten dute eta Euskal Herrian hain presente dagoen soziabilitatearen sinboloetako bat dira. Soziabilitate horrek belaunaldien arteko lotura eta komunitateko kideen integrazioa ahalbidetzen du oraindik ere. Gazte zein nagusi, gizarteko atal guztiek parte hartu dute bereziki estimatuak diren festa eta ospakizun hauetan, sarritan ez soilik gozamen hutserako, baizik eta errotik festaren edo ospakizunaren antolaketan ere bai.

Azken berrogei urteetan, festen izaera asko aldatu da. Iraganean, herrietako festak santu baten gurtzari lotuak zeudenez, meza, prozesio eta kutsu erlijiosoko bestelako ekintzak ageri ziren festa-egitarauan. Kutsu hori festen izenean mantentzen bada ere, erreferentzia erlijiosoa desagertzen ari da edo pisua galdu du egungo gizarte sekularizatuan. Horrekin batera inongo izaera erlijiosorik gabeko festa ugari eratu dira; auzune berrietan, adibidez. Bestelako gaien inguruan ardaztu diren festak agertu dira, hala nola euskarari lotutakoak non aldarrikapenakbat egiten duen ospakizunarekin. Urterik urte egutegia egun seinalatuz jantzia ageri zaigu.

Gizarte tradizionala delakoaz ari garenean, festa eta ospakizunak berehalakoan datoz burura. Tuterako Bolantina, Lazkaoko Astotxoa, Gernikako marijesiak, Zuberoako pastoralak... Horietako asko Erdi Aroaz geroztik daude dokumentatuta, nahiz eta akaso jatorriz zaharragoak diren. Inauteriak daude festa horien artean. Jatorriz paganoak, kristautasunaren eraginpean

17. Zuberoako Maskarada, buhameak.

18. Zalduondoko inauteria.

Un agenda des festivités vaste et riche

Le Pays Basque possède un répertoire de festivités particulièrement riche. Cet agenda est composé d'une longue liste de célébrations réparties sur toute l'année. Historiquement, la plupart des fêtes sont liées à une célébration religieuse ou à un village. Ensemble, elles ont contribué à dessiner et à mettre en évidence une identité territoriale propre. Jadis, la quasi-totalité des fêtes était de nature religieuse. Les fêtes expriment un besoin communautaire et constituent l'un des symboles de la sociabilité si présente au Pays Basque. Cette sociabilité permet encore aujourd'hui le lien intergénérationnel et l'intégration des membres de la communauté. Jeunes et moins jeunes, tous les groupes de la société participent à ces événements et festivités particulièrement appréciées, non seulement en profitant de la fête, mais aussi, souvent, en participant activement à leur organisation.

Ces quatre dernières décennies, la nature des fêtes a énormément changé. Jadis, les fêtes de village étant liées à l'adoration d'un saint, les messes, processions et autres activités religieuses faisaient partie du programme. Si cette caractéristique demeure dans le nom des fêtes, les références religieuses disparaissent peu à peu ou perdent de leur poids dans notre société sécularisée. De même, de nombreuses nouvelles fêtes dépourvues de toute connotation religieuse ont vu le jour, notamment dans les nouveaux quartiers. De nouvelles fêtes s'articulent autour de thèmes différents, comme la langue basque, où la revendication s'associe à la fête. Chaque année, l'agenda des festivités basques est orné de mille et un divertissements.

À l'évocation de la société dite traditionnelle, on pense immédiatement à différentes fêtes et célébrations : Le Volantin à Tuter (Navarre), Astotxoa à Lazkao (Guipuscoa), Marijesiak à Gernika (Biscaye), pastorales en Soule...



heldu dira guregana. Euskal Herriko geografia zabalean probintzia guztietan agertzen zaizkigu inauterietako ospakizunak, batzuetan pertsonaia jakin batzuen inguruan ardaztuta, besteetan xumeagoak. Neguko festekin gerta ohi den moduan, esanahi berezia dute herri-mailan zeren komunitatea trinkotzeko abaguneak baitira. Gabon-garaia amaitu berritan, zenbaitek Aste Santura bitartean luzatzen den festa-egutegi bizi eta koloretsua osatzen dute. Mozorroak, musika, dantza eta jan-edanik ez da falta. Desfile, antzezpen, tokian tokiko dantza eta bestelako errituek osatu ohi dute inauterietako alderdi ezagunena. Herri askotan eske-errondak, puska-biltze izenez ere ezagutzen direnak, egiten dira. Hala, aipatzekoak dira Zuberoako maskaradak, XIX. mendeko folkloristen deskribapenez geroztik aski ezagunak direnak. Urtero, Zuberoako herri batetako gazte jendeak bere gain hartzen du maskaradaren antolaketa. Hiru hilabetez herriz herri ibiltzen dira asteburuetan maskarada plazaratzen egun osoko emankizunean. Ikuskizun soila baino askoz gehiago da: belaunaldien arteko elkar ezagutza eta tokiko gatazkak zein tentsioak plazaratzeko eta askatzeko abagunea dira, bai eta umore eta ilusioaren pizgailua ere.

Inauteriek, historian zehar, kritika soziala eta politikoa modu adeigabe eta umoretsuan plazaratzeko aukera eskaini dute eta horrexegatik hamaika jazarpen ezagutu izan dituzte, autoritate erlijiosoaren eskutik lehenik eta botere zibiletik ondoren. Hego Euskal Herriko zenbait herritan desager-tzeaz egon ziren frankismoaren debekuaren ondorioz. Alabaina, 1970eko hamarkadatik landa, Europa osoa astindu zuen tradizioen berreskuratze- eta bilketa-lanen bidetik arnasberrituta heldu zaizkigu. Beste herri batzuetan, aldiz, goitik beherako ospakizunak asmatzeko gaitasuna izan dute, eta errotutako tradizio bilakatu dira denboraren joanean. Egun, tradizioaren dinamikotasuna ulertzeko adibide paregabea eskaintzen digute inauteriek.

XIX. mendeaz geroztik ospakizun berri mordoa agertu dira. Zaharren artean, izaera erlijiosoko ospakizunak ditugu oraindik ere; Olarizuko

19. Iturengo joaldunak Zarautzeko Euskal Jaian.

20. Erraldoiak Olarizuko erromerian.



19

Nombre d'entre elles sont documentées depuis le Moyen Âge et sont probablement plus anciennes encore. Les carnivals tiennent une place importante parmi ces festivités. Païens d'origine, ils ont été exposés à l'influence du christianisme. Les célébrations carnavalesques sont présentes dans toutes les provinces du Pays Basque, articulées autour d'un personnage central pour certaines, plus modestes pour d'autres. Comme la plupart des fêtes hivernales, elles revêtent une signification particulière pour les habitants, car elles permettent le resserrement des liens communautaires. La période de Noël aussitôt terminée, les plus motivés s'organisent un agenda festif vivant et coloré ininterrompu jusqu'à la Semaine Sainte. Déguisements, musique, danse, boisson et nourriture ne manquent pas. La facette la plus célèbre du carnaval est composée de défilés, représentations, danses locales et autres rites. Dans de nombreuses villes, on organise aussi des quêtes. Citons ainsi les mascarades souletines, devenues célèbres de la main des descriptions des folkloristes du XIX^e siècle. Chaque année, les jeunes d'un village de Soule prennent en charge l'organisation de la mascarade, *maskarada*. Ils sillonneront trois mois durant les villages souletins, présentant leur mascarade tous les week-ends, lors de représentations qui s'étendent sur toute une journée. La mascarade est bien plus qu'un simple spectacle : elle constitue une occasion de rencontres entre les générations, extériorise et libère les conflits et tensions du village et met la joie et l'humour sur le devant de la scène.

Le carnaval a toujours été l'occasion d'exprimer une critique sociale et politique de façon irrévérencieuse et humoristique. C'est précisément pour

19. Joaldunak navarraiz d'Ituren, lors de la Fête basque de Zarautz (Guipuscoa).

20. Géants, lors des fêtes patronales d'Olarizu (Alava).



20



21. Descente de Zeledon, fêtes de Vitoria-Gasteiz (Alava).

erromeria, adibidez. Halaber, aisialdiari zuzen-zuzenean lotutakoak ere baditugu; esaterako, XIX. mendeko azken laurdenean udatiarren gozagarri sortutako Donostiako Aste Nagusia. Euskal identitateari gorazarre egiteko asmoz sortu ziren jite tradizional markatua zuten festa berriak ere XIX. mendean, *euskal jaiak* izenez ezagutzen ditugunak. Denboran gugandik hurbilago, aurretiaz abian jarritako joerari jarraiki, festa-egutegia eraberri-tu, osatu eta ikaragarri zabaldu zen XX mendean zehar. Hala, festa urbano berriak agertu dira; Baionako festak, adibidez, 1932an lehen aldiz ospatu ziren, edota frankismoaren amaieran errotik itxuraldatu zen Bilboko Aste Nagusia, bai eta hamaika herri eta hirietako auzo berrietan sortutakoak ere.

Lurraldetasunari erreferentzia egiten dioten tokiko komunitatea ardatz duten beste zenbait jai garrantzitsu sortu ziren XX. mendearen azken laurdenean bereziki: Baztandarren Biltzarra eta Aezkoako Eguna, adibidez, antzinako antolaketa administratibo zabaldia zen *bailara* oinarri dutenak eta berau osatzen duten herritarren arteko kohesioa sendotu eta harremanak saretzeko balio izan dutenak. Hauei guztiei gehitu behar zaizkie tokian tokiko ondare eta produktuen inguruan asmatu diren jai egun seinalatuak. Halakoak dira, baita ere, lanbide tradizional gisa irudikatzen diren inguruan sortutakoak, izan desagertutako lanbideen oroimena transmititzea helburu dutenak –basoan moztutako enborrak ibaian lotuta garraiatzen zituen almadieroen omenez ospatzen den festa, adibidez–, nola mendiko jardueraren inguruan Euskal Herriko hainbat lekutan ospatzen diren artzain egunak; Oñati, Araia, Uharte Arakil, Amaiur eta Amurion, esaterako. Festa hauek guztiek beren tradizio sorta propioa sortu dute.

Euskal Herriko festa guztien artean badago bat nazioartean sona handia duena. Urtero, uztailak 6arekin batera lehertzen da festa Iruñean. Sanferminek mundu osotik milaka eta milaka bisitari erakartzen ditu Iruñeko kaleetara eta bertakoek zein kanpokoek gau eta egun gozatzen dute festaz. Iruñeko biztanleria boskoiztu egin ohi da festak iraun bitartean. Munduan globala bilakatu den fenomeno baten adierazlea ere bada. Izan ere, literaturaren edo

21. Zeledonen jaitsiera Gasteizeko jaietan.

cette raison qu'il a subi de nombreuses persécutions, d'abord de la part des autorités religieuses, puis de la part du pouvoir civil. Il a même failli disparaître dans plusieurs communes du Pays Basque Sud du fait des interdictions imposées par le franquisme. Mais à partir des années 1970, le carnaval est réapparu, renforcé par une démarche de récupération et de recueil des traditions qui s'était généralisée dans toute l'Europe. Dans certaines communes, on a su inventer des célébrations entières et les transformer au fil du temps en véritable tradition. Les carnivals sont un exemple tout à fait significatif du dynamisme de la tradition.

Une multitude de nouvelles festivités a vu le jour depuis le XIX^e siècle. Parmi les plus anciennes, on trouve encore des célébrations religieuses, comme la fête patronale d'Olarizu (Alava). Il existe aussi des événements directement liés au loisir, comme la Grande Semaine de Saint-Sébastien, imaginée pour le plaisir des vacanciers à la fin du XIX^e siècle. De nouvelles célébrations à caractère traditionnel appelées *euskal jaiak* « fêtes basques » ont été conçues au XIX^e siècle en hommage à l'identité basque. Plus proche de nous, au XX^e siècle, cette tendance s'est poursuivie et a alimenté, renouvelé et énormément diffusé l'agenda des festivités basques. Ainsi avons-nous vu naître de nouvelles fêtes urbaines, comme les fêtes de Bayonne, célébrées pour la première fois en 1932, ou la Grande Semaine de Bilbao, totalement transformée à la fin du franquisme, et bien d'autres encore.

Des fêtes importantes faisant référence à la territorialité et articulées autour de la communauté locale ont vu le jour à la fin du XX^e siècle notamment, telles que Baztandarren Biltzarra et Aezkoako Eguna, les deux en Navarre, organisées autour de la *bailara* (vallée), ancienne organisation administrative, et qui cherchent à renforcer la cohésion entre les habitants et à tisser des liens. N'oublions pas les fêtes pensées autour d'un patrimoine, de produits locaux ou de professions considérées comme traditionnelles. Ces dernières visent la transmission de la mémoire des professions disparues –une de ces fêtes, celles des *almadieros* par exemple, rend hommage aux conducteurs des trains de bois qui transportaient sur les fleuves les billots de bois assemblés en radeaux– ou la célébration de métiers traditionnels existants, comme les journées des bergers, organisées autour des activités de montagne dans divers villages et villes du Pays Basque, comme Oñati (Guipuscoa), Araia et Amurrio (Alava) ou Uharte-Arakil et Amaiur (Navarre). Toutes ces fêtes sont parvenues à créer leur propre tradition.

Parmi les fêtes du Pays Basque, il en est une qui a acquis une renommée mondiale incontestable. Chaque année, le 6 juillet, la fête éclate à Pampelune. Les San Fermin attirent des milliers de visiteurs des quatre coins du globe dans les rues de la ville, pour le plus grand bonheur des locaux et des étrangers, qui profitent de la fête jour et nuit. La population de Pampelune est alors multipliée par cinq. Ces fêtes illustrent un phénomène devenu mondial, qui consiste à rendre célèbre un lieu à travers la littérature ou le cinéma. En effet, les San Fermin se sont fait connaître du grand public grâce au roman *Le Soleil se lève* aussi d'Ernest Hemingway. L'écrivain américain prix Nobel de la littérature visita Pampelune pour la première fois en 1923 et publia trois ans après le roman où il évoque cette ambiance festive qui l'émerveilla.

À l'époque, les San Fermin étaient très différentes de celles que nous connaissons aujourd'hui. Les taureaux étaient présents, et les fêtes avaient bien lieu autour de la Saint Fermin, où on organisait à l'origine une foire. L'*encierro*, qui reste l'un des points les plus célèbres de la fête actuelle, est là pour nous le rappeler. Mais les personnes rassemblées étaient loin de

zinemaren eraginez herrialde bateko toki jakin bat ezagutzera eman, eta nazioartean fama lortzen du. Hala gertatu zen San Fermin jaiekin Ernest Hemingway-k idatzitako *Fiesta: Eguzkia jaikitzen da* (ingelesez *The Sun Also Rises*) eleberria argitaratuz geroztik. Gerora Nobel saria irabaziko zuen idazle estatubatuarra 1923an heldu zen Iruñera lehen aldiz, eta hiriak bizi zuen festa-gogoak liluratuta idatzi zuen aipatu eleberria hiru urte beranduago.

Orduko sanferminak egun ezagutzen ditugunaren aldean oso bestelakoak ziren. Zezenak presente zeuden, San Fermin santuaren egunez ospatzen zen feria baitago festaren jatorrian. Egungo festaren erdigune entzute-tsuenetakoa den entzierroak halaxe gogorarazten digu. Baina ez zen XX. mende amaierako halako masifikaziorik, ez eta zuri-gorritz jantzitako jende uholderik ere, ez eta uztailaren 15ean villabesaren entzierrorik ere. Sanferminen bilakaerak ongi erakusten duen bezala, tradizio moduan ezagutzen ditugunak eraldaketa handiak eta txikiak izan dituzte denboraren joanean.

22. Erronkariko almadieroak Eska ibaian behera.

23. Sanferminetako entzierroa Iruñean.



22



23

22. Almadieros de Roncal descendant le fleuve Eska (Navarre).

23. Encierro des San Fermin, Pampelune (Navarre).

former l'immense foule qu'on observe depuis la fin du XX^e siècle. On ne s'habillait pas de blanc et rouge, et on ne faisait pas l'*encierro* de la Villabesa le 15 juillet. L'évolution des San Fermin montre bien que ce que nous considérons comme tradition n'est pas exempt de petites modifications, voire de profondes transformations.

Ohitura zaharrak? Tradizio berriak, bizi-biziak

Euskal gastronomia munduan ezaguna bilakatu da XX. mendearen amaieraz geroztik. Michelin izarrak bata bestearen ondoan zerrendatzen dituzten goi-mailako punta-puntako jatetxeak daude. Horiez gain, sukaldaritza tradizionalagoa prestatzen jarraitzen duten ostatuek eta sagardotegi, bodega zein txakolindegiek bertatik bertara ekoiztiko eta tentuz eta mimoz kozinatutako jakien eskaintza oparoaz hartzen dituzte bezeroak. Bada, baina, guztien gainetik zabaldu den gastronomia-fenomeno bat: pintxoak. Abiapuntua gerraosteko Donostian izan bazuen ere, egun Euskal Herri osora zabaldu den fenomenoa dugu, bai eta Euskal Herrikan kanpora ere; esaterako, Espainiar estatuko hiri handietara eta euskal jatetxeetako eskaintza berezitu gisara, Estatu Batuetara eta Kanadara ere bai, besteak beste.

Gerraostean taberna giroko txikiteoaren testuinguruan sortu zen lehen pintxo *gilda* izan zen. Tabernaz taberna egunero zebiltzan gizon kuadrillei *baxoerdi* eta *baxoerdi* artean mokadu bat eskaini asmoz, Donostiako erdialdeko ardandegi batean sortu omen zen pintxo ezaguna. Osagaien kalitateak egiten du *gilda* berezi bere soiltasunean: piperrak, gazitutako antxoia eta olibak elkarren ondoan txotx batean sartuta, guztia mokadu bat edo bitan jaten dena, olio tantekin ez zikintzeko tentuz betiere. Izenak gaztelaniazko hitz-joko batean du oinarria: berdea, gazia eta bizia, Rita Hayworth-ek zinema klasikoko harribitxia den *Gilda* filmean gorpuzten duen izen bereko pertsonaiaren gisakoa.

Hiriko beste tabernak berehala pintxo erako bestelako mokaduak eskaintzen hasi ziren, tabernako barra gainetik zuzenean bezeroak eskuz jateko modukoak. Txikiteo eremutik zabaldu egin zen pintxoak jateko ohitura, emakumezkoak ere taberna giroan murgiltzen hastearekin batera. Lehenik asteburuko jarduera eta, ondoren, aste osoko jarduera gisa. Denboraren joanean, pintxoak sofistikatzeko joan dira, goi-mailako sukaldaritzaren erakusle bidez eta aparta bihurtzeraino. Miniaturazko sukaldaritza moduan ezagutzen dira baita ere. Horrekin batera, pintxoak euskal kulturaren barruan tradizio gisa pentsatu eta aurkeztu dira, denboran ongi identifikatu daitekeen asmatutako tradizioa izan arren.

Zer jaten den baino –pintxoaren zerrenda tabernena bezain amaigabea litzake–, nola jaten den, edo, bederen orain artean, nola jan den da interesgarria. Gizonezko txikiteoaren ohitura moduan sortu zena, euskal gizartearen sozialitate-tradizio errota bilakatu zen hamarkada gutxiaren buruan. Preziatua eta zaindu beharreko zerbait moduan ikusten dira pintxoak XXI. mende hasiera honetan, jakiak mimatuz, bezeroak egunerokotasunetik ihes egiteko gozamenerako aukera ematen dute, lagunarteaz gozatzeko. Lagunarteko jarduera moduan bizi da eta kanpotik etorritako bisitariei harrera ona egiteko modu original gisa ikargarri zabaldu da azken hamarkadatan, bai eta arlo profesionalen ere, bertako esperientzia barrutik bizitzeko aukera moduan. Ez hain aspaldikoak izanagatik ere, jaki tradizionaltzat jotzen dira jada pintxoak.

24. Pintxo barra bat.

Anciennes coutumes, nouvelles traditions bien vivantes



24. Comptoir de pintxos.

La gastronomie basque est reconnue dans le monde depuis la fin du XX^e siècle. Nous comptons plusieurs restaurants très haut de gamme qui collectionnent les étoiles Michelin. Parallèlement, les restaurants et cidreries, bodegas et txakolindegis sont nombreux qui préparent une cuisine plus traditionnelle et proposent aux convives des produits locaux cuisinés avec amour et générosité. Mais il est un phénomène gastronomique qui a détrôné tous les autres : le *pintxo*. Cette petite ration de nourriture proposée au comptoir est née durant l'après-guerre à Saint-Sébastien, avant de se développer dans l'ensemble du Pays Basque et même au-delà, puisqu'on le trouve dans les grandes villes de l'État espagnol et comme offre spécialisée des restaurants basques, aux États-Unis et au Canada, entre autres.

Le premier *pintxo* créé durant l'après-guerre autour du *txikiteo*, habitude consistant à boire des petits verres d'alcool de bar en bar, est la *gilda*, née, semble-t-il, dans un bar à vins du centre de Saint-Sébastien, où on offrait un petit encas, entre deux verres, aux groupes d'hommes qui arpentaient les bars quotidiennement. C'est la qualité des ingrédients qui rend la *gilda* si spéciale dans sa simplicité : piments, anchois salés et olives, piqués en brochette, le tout étant avalé en une ou deux bouchées, en veillant à éviter les taches d'huile. Le nom de ce *pintxo* trouve son origine dans un jeu de mots en espagnol : vert, salé et vif, comme le personnage Gilda, joué par Rita Hayworth dans le film du même nom, bijou du cinéma classique.

Tout de suite, les autres bars de la ville se mettent à proposer d'autres types d'encas, que les clients peuvent manger sans couverts et directement au comptoir. Cette habitude du *pintxo* s'étend au-delà du *txikiteo*, avec la

Tradizioak etengabe aldatzen direla erakusten du pintxoen bilakaerak berak: 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egin asmoz, Gasteizen formula berezi bat proposatu zuten: *pote* edo edariarekin batera, pintxo eskaintzea salneurri finkoan. Hala, *pintxo-potearen* sorreraren lekuko izan gara, azkar errotu eta zabaldu den jarduera, hirigune nagusietan erdigunetik auzoetara indar handiz hedatu dena.

Badira, halaber, bestelako bidea egin duten tradizioak. Egunerokotasuna eraldatzearekin batera, iraganaren lekuko moduan memoria kolektiboan errotu direnak. Horren adibide dira hainbat kozinatze modu edo plateren bueltan antolatzen diren lehiaketa eta herri-bazkariak. Asko eta askotari-koak dira; zenbaitek arrantzaleen ohiko otorduari erreferentzia egiten diote, marmitakoari adibidez. Industrializazioaren garaiaz geroztik, Bizkaiko Enkarterrietan eta bereziki Balmasedan errotu den *putxeren* tradizioa ekarri nahi dugu hona. Trena erreferentzia duen eltzekaria da *putxera*, babarrun gorri eta txerrikiz (txorizo, odolki, xingar) osatua, ikatzez zebiltzan trenak sortutako lurruna baliatuz kozinatutakoa. Valentziar herrialdeko paellarekin gerta moduan, hemen ere ontziak ematen dio izena jakiari.

Trena eta trenbideak euskal historia garaikidean berebiziko garrantzia dute, lehen-lehenik Bizkaiko meatzetako burdin-ustiapenari lotuta eta bigarrenik, burdingintza-industriaren produktu eta garraiobide moduan. Estatuko FEVE enpresaren lantegiak eta tailerrak Balmasedan kokatuta zeuden. Bertatik pasatzen ziren ikatz bila Leonera bidea egiten zuten trenak. Tuperrik eta mikrouhinik ez zegoen garaian, baten bati bero jateko premiak zorrotzu zion nonbait gogo. Tradizioak agindu moduan, ezin jakin nori otu zitzaion trenaren lurruna kozinatze moduko lapikoa egokitzea. Aspaldi desagertu dira lurrunezko trenak gure paisaietatik, baina *putxerek* hor segitzen dute, urtero San Severino egunez Balmasedako plaza eltzekari usain goxoz lurruntzen.

25. *Putxeren* inguruko erakusketa Balmasedan.



25. Exposition des *putxeras* à Balmaseda (Biscaye).

fréquentation progressive de la part des femmes dans les bars. Le *pintxo* devient une habitude de fin de semaine, puis quotidienne. Au fil du temps, les *pintxos* gagnent en sophistication, au point de devenir la vitrine flamboyante de la grande cuisine. On les appelle aussi « gastronomie miniature ». Les *pintxos* sont souvent envisagés et présentés comme traditionnels de la culture basque, alors qu'ils correspondent bien à une tradition inventée et parfaitement identifiée et datée.

Ce qui caractérise le *pintxo*, c'est moins sa composition –la liste des différents *pintxo* serait aussi longue que celle des bars du Pays Basque– que la façon dont on le mange, ou du moins, dont on l'a mangé jusqu'à présent. Cette habitude des hommes *txikiteros* (adeptes du *txikiteo*) s'est transformée en quelques décennies en tradition de sociabilité bien ancrée dans la société basque. En ce début de XXI^e siècle, les *pintxos* sont appréciés et choyés. Ils permettent aux clients de s'évader de leur quotidien pour jouir d'un moment de plaisir entre amis. Le *pintxo* est considéré comme une activité conviviale et il s'est énormément répandu ces dernières décennies comme moyen original d'accueillir chaleureusement les visiteurs étrangers, même dans le cadre professionnel, en leur donnant l'occasion de vivre une véritable expérience locale. Le *pintxo*, bien que relativement récent, est désormais considéré comme un mets traditionnel.

L'évolution des *pintxo* révèle elle aussi l'évolution constante des traditions : face à la crise économique de 2008, une nouvelle formule est proposée à Vitoria-Gasteiz : pour tout *pote* (verre) acheté, un *pintxo* offert à prix fixe. Nous avons donc été témoins de la naissance du *pintxo-pote*, habitude qui s'est rapidement enracinée et développée, puis fortement diffusée des agglomérations principales aux quartiers.

D'autres traditions ont connu un chemin différent : tout en transformant le quotidien, elles ont pris racine dans la mémoire collective comme témoins du passé. Citons par exemple les concours ou repas organisés autour de modes de cuisson ou de plats basques, nombreux et divers. Certains font référence au repas traditionnel des pêcheurs, comme le *marmitako*. D'autres, dont nous aimerions faire mention ici, mettent à l'honneur la tradition des *putxeras*, ancree depuis l'ère de l'industrialisation, dans la comarque des Enkarterri de Biscaye, et notamment à Balmaseda. La *putxera* est une soupe composée de haricots rouges et de porc (chorizo, boudin, ventrèche), cuisinée traditionnellement en utilisant la vapeur des trains alimentés au charbon. Comme la paëlla de Valence, le plat porte le nom de son contenant.

Le train et la voie ferrée sont essentiels dans l'histoire contemporaine basque, d'abord parce qu'ils sont liés à l'exploitation des mines de fer de Biscaye, puis comme produit et moyen de transport de l'industrie du fer. Les usines et ateliers de l'entreprise espagnole FEVE étaient situées à Balmaseda. Les trains à destination de León passaient y chercher du charbon. À cette époque où les tupperware et les micro-ondes n'existaient pas, quelqu'un fut probablement contraint de trouver une solution pour manger chaud. Comme pour beaucoup de traditions, on ignore à qui on doit la conception de cette marmite adaptée à la cuisson à la vapeur du train. Les locomotives à vapeur ont disparu depuis fort longtemps de notre paysage, mais les *putxeras* sont restées, parfumant de leur douce vapeur de soupe la place de Balmaseda, chaque année, à la fête de San Severino.

Tradizioa, etorkizunera begiratu bat



26. Laja eta Landakanda trikitilariak 2005ean.

Kultura tradizionala delakoa edukiz, euskarriz eta formaz eraberrituta iritsi da guganaino. XIX. mendeko ikuskerak markatuta, luzaz *herri-tradizio* deiturapean jaso izan dira kultura-agerkari jakin batzuk. Izendapen horrek, idatzizko transmisioa nagusi duten bestelako formen aurrean, ahozko tradizioari erreferentzia egiten dio, izan eduki aldetik nola ezagutzaren transmisioa gauzatzen den kanalarri dagokionez. Usu, halakoak folkloreakin identifikatu izan dira eta euskal kulturaren identitate-ikur moduan agertu izan dira luzaz, fenomeno hauen bilakaera zentzu batean zein bestean baldintzatuz. Garaiaren arabera hauspotu edo lausotu egin da fenomeno hauek gizartean izan duten harrera. Txistua eta txapelak erakusten dute halako identifikazio batek iraganean izan zezakeen goresmena, bai eta ondotik haiekiko lausotzea. Euskal dantza edo trikitiaren kasuan, esaterako, bilakera konplexuagoa izan dute, gorabehera eta eraldaketa handiekin. Oro har, herri-tradizioaren nozioa da berrikusi beharrekoa, egungo gizarteak zerikusi gutxi duelako iraganearekin. Ordenu soziala irizpide moral jakin batzuen baitan gorde beharraz mintzo zaizkigu behialako xaribari eta zintzarrotsak, biolentzia sinboliko zein errearen bidez, komunitateko kideen portaera eta zenbait bizi hautu –alargunen berrezkontzea, adibidez– bortizki kritikatu. Egun halakorik ez da onartzen. Tradizio moduan ezagutzen ditugun horiek etengabe eraberritzen dira, hutsalak kontsideratzen direnak baztertuz eta berriak sortuz eta asmatuz.

Tradizio gisa identifikatzen ditugunak errutinak markatutako egunerokotasunetik aparteko denbora batean gauzatu ohi dira, erritu eta formula jakinek markatutako aparteko espazio eta denbora batean non emozioak lehertu eta adierazten diren; zenbaitetan sotilki, modu xume eta intimoetan,

Tradition, un regard tourné vers l'avenir

La culture dite traditionnelle, dans son parcours jusqu'à nous, a vu évoluer ses contenus, ses contenants et sa forme. D'après la conception du XIX^e siècle, certaines manifestations culturelles ont souvent été qualifiées de « tradition populaire ». Cette dénomination fait référence, par opposition aux formes dans lesquelles la transmission écrite prédomine, à la tradition orale, que ce soit dans ses contenus ou par ses canaux de transmission de la connaissance. Souvent, ces manifestations culturelles sont identifiées au folklore et sont exposées comme symboles identitaires de la culture basque, conditionnant l'évolution de ces phénomènes dans un sens ou dans l'autre. En fonction des périodes, l'accueil de ces manifestations par la société s'est amélioré ou au contraire amoindri. Le *txistu* (flûte basque) et le béret sont très révélateurs de l'image élogieuse rattachée à des symboles d'identification culturelle, ternie avec le temps. La danse et le *trikiti* (accordéon diatonique basque) ont connu une évolution plus complexe et mouvementée. C'est la notion de tradition populaire dans son ensemble qui est à revoir, car la société contemporaine a peu de points communs avec celle du passé. Les charivaris de jadis parlent de la nécessité de maintenir l'ordre social dans le cadre de certains critères moraux, par la violence symbolique ou réelle, critiquant violemment les comportements ou les choix de vie de membres de la communauté –le remariage des veuves, par exemple-. Aujourd'hui, cela semble inacceptable. Ce que nous appelons tradition est sans cesse renouvelé, en écartant ce que l'on considère comme dépassé ou vide de sens et en créant et en inventant de nouveaux éléments.

Les éléments que nous identifions comme tradition se matérialisent souvent hors d'un quotidien marqué par la routine, dans un espace et un temps particulier caractérisé par des rites et des formules précis, où les émotions explosent et sont exprimées ; parfois sobrement, modestement et intimement, plus souvent dans des explosions d'expériences et dans l'euphorie collective. Si on a fortement tendance à mettre en relation les traditions et les célébrations ou les fêtes, il ne s'agit en aucun cas de la seule façon ou de la seule réalité qui incarne les traditions. Nous avons exposé ici des professions, des activités ou même des paysages qui peuvent être l'objet de processus qui les transformeront en tradition. Cela arrive souvent aux phénomènes en voie de disparition ou de profonde transformation.

Même dans les cas qui semblent avoir connu peu de modifications formelles dans le temps, l'intensité avec laquelle les traditions sont vécues peut être très différente d'une période à l'autre, car le prisme varie en fonction des intérêts et des caractéristiques propres aux sociétés de chaque époque. Comme nous l'avons vu, les traditions révèlent une réalité extrêmement riche et diverse en formes et en fonds. Des deux côtés de la frontière, au-delà de l'influence des États et autres structures administratives, le

besteetan bizipen-eztanda eta euforia kolektibo moduan. Tradizioak ospa-kizunekin eta festekin lotzeko joera handia badago ere, hori ez da inondik inora tradizioak gorpuzten diren modu edo errealitate bakarra. Ikusi dugu nola lanbide, jarduera edo paisaia bera tradizio bihurtzeko prozesuen objektu izan daitezkeen. Sarri, galbidean edo esanahia aldaketa sakonak eragiten dituzten fenomenoekin batera gertatzen da hori.

Formalki denboran zehar aldaketa gutxi izan dituztela dirudien kasuetan ere, tradizioak bizitzeko intentsitatea zeharo desberdina izan daiteke garaiaren arabera. Orduko eta egungo gizartearen interesen eta parametroen arabera fokua aldatu egiten baita. Ikusi ahal izan dugunez, errealitate ikaragarri aberatsa uzten dute agerian, formaz eta edukiz anitza eta askotarikoa. Mugaren bi aldeetan, estatuen eta bestelako egituratze administratiboen eraginaz harago, tradizioaren dinamikotasuna eta garai eta bizimolde berrietara egokitzeko gaitasuna –batzuetan salbuespen gatazkatsuak barne– agerikoak dira.

Tradizioaren formaren eta aldaeren agertoki bizia bezain interesgarria topa dezakegu egungo euskal gizarte garaikidean. Bestelako jarduerekin gerta moduan, tradizioen eraberritzeko gaitasuna frogatzeko garai berezia bizitza egokitu da XXI. mendearen hasieran: bizimoduaren aldaketa azkar eta etengabeak, gatazka-iturri bilakatu ditu hainbatetan tradizio moduan ezagutzen ditugun horiek. Iragana eta etorkizunaren arteko zubi-lana egiten duen jarduera, praktika eta adierazpide moduan uler dezakegu tradizioa eta horrexegatik zaizkigu batzuetan kuttun eta besteetan gorrotagarri. Azken batean, munduko beste tokietan bezala, Euskal Herrian tradizioek unean uneko gizartearen balio, lehentasun eta korapiloak beste ezerk baino nabarmenkiago agerian uzten dituzte.

27. Esne Beltza, 2016.



27. Esne Beltza, 2016.

dynamisme de la tradition et sa capacité d'adaptation aux nouvelles époques et aux nouveaux modes de vie –hormis quelques exceptions conflictuelles– sont évidents.

La société contemporaine basque offre une scène aussi vivante qu'intéressante des formes et des évolutions de la tradition. Comme pour toute autre activité, les traditions ont fait face à une période très particulière de mise à l'épreuve de leur capacité de renouvellement, en ce début du XXI^e siècle : les changements rapides et incessants des modes de vie ont fait de certaines traditions des sources de conflits. Les traditions peuvent être considérées comme des activités, des pratiques ou des modes d'expression établissant des ponts entre le passé et l'avenir ; c'est pourquoi elles peuvent nous sembler chérissables ou détestables. En somme, comme partout dans le monde, les traditions du Pays Basque sont des révélatrices hors pair des valeurs, des priorités et des problématiques de la société du moment.



Aitzpea Leizaola (Saint-Sébastien, 1971)

Antropologoa. Hizkuntzalaritza eta antropologia ikasketak burutu zituen Parisen. Paris Nanterre Unibertsitatean doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle agregatua da, bai eta bertako antropologia master ofizialeko zuzendaria. Oxford Universityn *Basque Visiting Fellow* izan da eta ikertzaile gonbidatua nazioarteko hainbat unibertsitatetan ere. Erromako Visual Fest 2014 saria lortu zuen *Abordatzera! Dokumental etnografikoa*-rekin. Aldizkari zientifikoetan 30 artikulua inguru argitaratu ditu eta *Ankulegi* aldizkariaren sortzaile eta edizio-taldeko kide izan da. Dibulgazioan jardun ohi du, hitzaldi eta iritzi artikulua bidez. Multi-kokatutako eta epe luzeko landa-lana burutu du Euskal Herrian, Espainian eta, berriki Turkian, komunitate sefardiaren inguruan. Identitate eraikuntza prozesuetan aditua, bere ikergai nagusiak mugak, ondarea, memoria gatazka-osteko testuinguruetan eta, oro har, euskal kultura dira.

Anthropologue. Elle a suivi des études d'anthropologie et de linguistique à Paris. Docteure en anthropologie à l'Université Paris Nanterre, elle est professeure agrégée à l'Université du Pays Basque où elle dirige le master officiel d'anthropologie. Elle a été *Basque Visiting Fellow* à l'Université d'Oxford et chercheuse invitée dans différentes universités à travers le monde. Lauréate du prix Visual Fest de Rome en 2014 pour *Abordatzera! Dokumental etnografikoa* (À l'abordage ! Documentaire ethnographique). Elle a publié une trentaine d'articles dans différentes revues scientifiques et a été fondatrice et membre du comité éditorial de la revue *Ankulegi*. Elle pratique la vulgarisation, par des conférences et des articles d'opinion. Elle a effectué des études de terrain multisituées à long terme au Pays basque, en Espagne et plus récemment en Turquie, autour de la communauté séfaraite. Spécialiste des processus de construction de l'identité, elle étudie principalement les frontières, le patrimoine, la mémoire dans les contextes d'après-conflit et plus généralement la culture basque.

KREDITUAK / CRÉDITS

Euskal Kultura Bildumaren edizioa
Édition de la Collection Culture Basque
Etxepare Euskal Institutua

Testua / Texte
Aitzpea Leizaola CC BY-NC-ND

Frantsesezko itzulpena
Traduction française
Nahia Zubeldia

Edizioa / Édition
Miriam Luki Albisua

Maketazioa / Mise en page
Iñigo Cerdán Matesanz

Diseinua / Conception
Mito.eus

Azaleko argazkia / Photo de couverture
Hondarribiko Alardea / *Alarde* à Hondarribia
(Guipuscoa). Oarso Bidasoako Hitza.

Argitalpen urtea / Année de publication
2021

Argazkiak / Photos


1. Ixabako Udala / Mairie d'Izaba.
2. Luis Jauregialtzo – FOKU.
3. Tolin. Zarauzko Udala / Mairie de Zarautz.
4. Igartubeiti Baserri Museoa-Gipuzkoako Foru Aldundia / Musée Igartubeiti-Députation Forale du Guipuscoa.
5. Juan Carlos Ruiz – FOKU.
6. Asier Zaldúa.
7. Séverine Dabadie.
8. Gernika-Lumo Udala / Mairie de Gernika-Lumo.
9. Txelu Angoitia – Gerediaga Elkarte.
10. Jaizki Fontaneda – FOKU.
11. Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa / Office du Tourisme de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.
12. Juan Carlos Ruiz – FOKU.
13. Albaola.
14. Sergi Colomer – Zegama Aizkorri Mendi Maratoia / Marathon de montagne Zegama-Aizkorri.
15. Eneko Gómez Mariñelarena – AEK.
16. Mikel Arrazola. Irekia-Eusko Jaurkitzailea / Gouvernement Basque. CC BY-3.0-ES 2012.
17. Séverine Dabadie.
18. Basquetour.
19. Tolin. Zarauzko Udala / Mairie de Zarautz.
20. Quintas. Gasteizko Udala / Mairie de Vitoria-Gasteiz.
21. Basquetour.
22. Nafarroako Almadiazainen Kultur Elkarte / Association Culturelle des Almadieros de Navarre.
23. Carlos Mediavilla Arandigoyen.
24. ondojan.com
25. Basquetour.
26. Jon Urbe – FOKU.
27. Juanan Ruiz – FOKU.
28. Arkaitz Garmendia.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua nazioartean euskara, euskal kultura eta sorkuntza sustatzea eta ezagutzera ematea da, eta, horien eskutik, beste herrialdeekin eta kulturekin harreman iraunkorrak eraikitzea. Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditugu, eta sortzaile, artista nahiz kultura-sektoreetako profesionalen mugikortasuna errazten dugu, baita euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragile kulturalekin eta akademikoekin elkarlana bultzatzen dugu. Zeregin horietan guztietan Euskadiko kanpo ordezkaritzak gertuko bidelagun ditugu.

Institut Basque Etxepare

L'Institut Basque Etxepare est une entité publique dont l'ambition est de promouvoir et de faire connaître la langue, la culture et la création basques à l'international et de construire à travers elles des relations durables avec d'autres pays et cultures. Pour ce faire, nous encourageons des activités artistiques de qualité et favorisons la mobilité des créateurs et créatrices, des artistes et des professionnels des secteurs culturels, ainsi que l'enseignement de la langue et de la culture basques. Nous promovons également la collaboration avec des acteurs internationaux des domaines culturel et universitaire. Nous travaillons sur tous ces aspects en étroite collaboration avec les délégations de la Communauté Autonome Basque à l'étranger.





BASQUECULTURE.EUS
THE GATEWAY
TO BASQUE CREATIVITY
AND CULTURE

BASQUE.

Europarrok kultura-ondare oparoa partekatzen dugu, mendeetan zehar izan ditugun trukeen eta migrazio-fluxuen ondorioa dena. Hala, bertako hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, berezi egiten gaituen horri esker guztiok jorituria, Europak duen balio handienetakoa bat da. BASQUE. lurralde baten isla da (euskararen lurraldearena), historia baten isla, mundua ulertzeko modu batena, gurea. Bere sustraiez harro dagoen kultura baten adierazpidea da, ikuspegi berri bat eskaintzeko tradizioa eta abangoardia uztartzen jakin duen kultura batena. BASQUE. euskal kultura eta sorkuntza garaikideari begiratzeko leihoa da. Musikaren, dantzaren, antzerkiaren, zinemaren, literaturaren, artearen eta beste adierazpide batzuen bidez euskal kultura eta euskara ezagutzera emateko leihoa. Eta, era berean, sormenari zabalik dagoen leku bat da, partekatzeko, zubiak eraikitze eta solaserako, kulturen artean elkar aditzen lagunduko diguten elkarriketa berriei bide emateko.

Les européens partageons un riche héritage culturel issu de siècles d'échanges et de flux migratoires. La diversité linguistique et culturelle est une des principales valeurs de l'Europe à laquelle toutes et tous participons avec notre spécificité. BASQUE. est le reflet d'un pays (la terre de l'euskara), d'une histoire, d'une façon d'appréhender le monde, la nôtre. L'expression d'une culture fière de ses racines, qui a su englober la tradition et la modernité pour offrir un nouveau regard. BASQUE. est une fenêtre d'où nous pouvons nous pencher pour découvrir la culture et la création contemporaine basque à travers la musique, la danse, le théâtre, le cinéma, la littérature, l'art... Et sa langue, l'euskara. Et en même temps, un lieu ouvert à la créativité où nous nous pouvons partager, jeter des ponts et générer de nouvelles conversations qui contribuent au dialogue entre les cultures.

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA



EUROREGION
EUROESKUALDEA
EUROREGION
NOUVELLE REGION • EUSKAL KONTAKIA
NUEVA REGIÓN • EUSKAL KONTAKIA
NUEVA REGIÓN • EUSKAL KONTAKIA